


Herririk Herri | 3 |

Durango nekazariak ere 'Baserritik plazara' leloa erabiliko dute plazan



Berbaz | 9 |

A. Bikandi: "Datozen belaunaldientzat izango da ona Tabakoaren Legea"

Kultura | 11 |

'RAM memoria' erakusketaz berba egin digu Zalao Fuertes argazkilaria

Greba mugagabea hasi dute A.P. Iberica enpresako langileek

Mallabia• Langileak astelehenean daude greban, eta oraindik 2009ko Hitzarmen Kolektiboagaz dabiltzala salatu dute, besteak beste. Zuzendaritzak greba bertan behera uztea eskatu du negoziazioekin hasteko baldintza moduan.



6


Hiltegiko lanei aurten ekiteko eskatu du Herria auzo elkarteak

Durango• Durango Udaleko Hirigintza Batzordeak 2012ko martxoaren 1era arteko epea eman dio lanak hasteko Erralderi. Herria auzo elkarteak lanak aurtengo urriaren 1a baino lehenago hastea eta 2013ko otsailera amaitzea eskatu du.

2

2011KO UDAL ETA BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK

15-18



•Iurreta

Okela eta Ardao Eguna ospatuko dute zapatuan Askondon

5

•Durango

Spinning Maratoia etzi, euskararen erabilera soziala sustatzeko

2

•Izurtza

Plan Orokorra hasieraz onartuta

8

Izar guztiak lehiatuko dira Emakumeen Biran

> Ekainaren 9tik 12ra korrituko den Biran ikuskizuna agindu dute antolatzaileek

> Azken hiru aldietako irabazleak datoz: Judith Arndt, Marianne Vos eta Claudia Hausler

21



Antolatzaileak, laguntzaileak eta babesleak batu ziren Emakumeen Biraren aurkezpenean. Kepa Aginako.

ZURE AUKERAK ZABALDU!!!

IURRETA

MATRIKULAZIOA

Uztailaren 5etik 31ra

Tel.: 94 466 88 00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Hiltegiko obrak arinago hasteko eskatu du Herriak

Hirigintza Batzordearen azken erabakiak baloratu ditu auzo elkarteak

Durangoko Udaleko Hirigintza Batzordeak Erralderi 2012ko martxoaren 1era arteko epea eman dio lanak hasteko, baina Herria auzo elkarteak aurten bertan hasi daitezke gura du. Auzokideen batzar nagusian erabaki dutenez, hirigintza batzorde berrian presazko agerraldia eskatuko du Herriak.

Hile honetan Durangoko Udaleko Hirigintza Batzordeak erabakitakoaren arabera, hiltegi berriko lanak 2012ko martxoan baino lehenago hasi beharko ditu Erraldek, eta 2014ko otsailaren 28a baino lehenago amaituta egon behar-

Berrizko obrak hasteko muga datorren urteko martxoan ipini du udalak; Herriak aurten hastea gura du

Alokairuko baldintzen gainean berba egiteko Hirigintza Batzordean agerraldia eskatuko du auzo elkarteak

ko dute. Denbora tarte horretarako luzatuko lioke alokairu kontratua udalak. Herriako kideek, ordea, lanok arinago hasi eta amaitzea gura dute: aurtengo urriaren 1a aurretik hasi eta 2013ko otsailaren 28a baino lehenago amaitzea; "data horretatik aurrera, Erraldek ezingo luke gaur egungo instalazioetan jardun", diote Herriakoek.

Epeei buruzko eskariez gainera, alokairu kontratuan klausula bat sortzeko eskatu gura dio Herriak Hirigintza Batzordeari. "2007an Erraldek eta Herriak sinatutako akordioko edozein baldintza betetzen ez badute, alokairu

kontratua etetea" izango litzateke klausula horren eginkizuna.

Hauteskundeak tartean

Hiltegi berriko obrak hasi baino lehenago Erraldek finantziario egitasmoa aurkeztu behar du Durangoko Udalean. Irailaren 30a baino lehenago aurkeztu beharko du proiektu hori. Tartean udal hauteskundeak izan direnez, enpresako zuzendaritzan aldaketak egin-

Kontratua luzatzeko, Erraldek finantziario proiektua urria orduko aurkeztu behar du

go dituzte laster, eta, besteak beste, horregatik luzatu dute finantziario proiektua aurkezteko epea. Herria ados dago epe horregaz, baina obrak egin bitarteko alokairua udalak proposatu baino gutxiago luzatzea gura du auzo elkarteak. ■ A. Ugalde.

Martxan da aurtengo Sanfaustoetako kartel lehiaketa

Urriaren 8tik 16ra egingo dituzte aurten Sanfausto jaiak, eta dagoeneko hasi da jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa. Uztailaren 22ra arteko epea egongo da kartelak Herritarren Arreta Zerbitzuan uzteko.

Kartel irabazleak 1.000 euroko saria edukiko du. Aukeraketa egiteko, aurkeztutako lanen artean bost kartel aukeratu dituzte epaimahaiak. Gero, herribozketa egiteko aukera egongo da, udaleko webgunearen bidez www.durango-udala.net. Bozketa horrek azken erabakian % 40ko pisua izango du. Lehiaketako oinarriak udalaren webguneari bertan daude. ■ A.U.

Kirolean euskara sustatu guran, spinning egitera joateko deia

Durangaldeko I. Spinning Maratoi Txapelketa antolatu dute domekarako



Euskararen erabilera soziala areagotu gura dute antolatzaileek, azaldutakoaren arabera.

Kirolean ere euskaraz lelopean Durangaldeko I. Spinning Maratoi Txapelketa antolatu du irabazi asmorik gabeko ITG elkarteak. Domekan jarri dute hitzordua, 10:30ean, Ezkurdi plazan. Hezkuntza esparrutik haratago, euskararen "erabilera soziala areagotzea" dute helburu. "Durango eta Durangaldeko herritarren euskararen ezagutza maila handia den arren, bestelakoa da eguneroko erabilera", diote.

Dagoeneko ehundik gora lagunek eman dute izena, eta Mikel Zarrabeitia txirrindulari ohiak ere egin du bat ekimenagaz.

Mikel Zarrabeitia Abadiñoko txirrindulari ohiak bat egin du ekimenagaz

'Kirolean ere euskaraz' lelopean antolatu dute spinning maratoi txapelketa

Lehen mailan jardun zuen txirrindulari abadiñarrak maratoia gidatu ere egingo du tarte batean: "Bizikleta gainean lehen mailako txirrindulariekin leihan ikusi dugunontzat, ohore bat da jakitea lasterketa talde berean dihardugula euskararen erabilerean bidean" dio Sergio Murillok, lasterketako bultzatzaileetarikoa batek.

Irabazleak nekazal etxe batean asteburuko egonaldia irabaziko du; bigarrenak, euskarazko kultur ekitaldiak ikusteko sarrerak: www.bizieuskeraz.com webguneari sartuta eman daiteke izena. ■ A. Basauri

Tabernetan terraza estaliak ipintzeko eredia aurkeztu dute

Terrazen ordenantza berri horretarako aukerak egon daitezkeen aztertuko dute PERCO mahaian

"Urtaroetara mugatuta ez dauden terrazak" edukitzeko moduak aztertzen eta ekarpenak batzen dabilta Durangon. Tabakoaren legea dela eta terraza bereziak ipintzeko aukeretakoa bat aurkeztu du +Dendak elkarteak Herria tabernan. Aste bete barrura arte egongo da bertan, ostalariek, herritarrek eta udal arduradunek ikusteko eta iritzirik emateko.

Merkataritza bultzatzeko helburua duen PERCO mahaian terrazen ordenantza berritzen dabilta, eta 2012ko urtarrilerako

Taberna bakoitzak daukan espazioaren arabera aztertuko dituzte aukerak

onartu gura dutela azaldu dute mahai horretako kide diren politikariek.

Herria tabernan ipinitako egiturak bi zati ditu: sabaia eta manparak. Sabaiak eguzki filtroa eta ura batzeko kanaloiak dauzka. Led teknologiko lanparak ere badauzka, eta eguzki plaka batek sortutako energia pizten dira.

Modelo ugari daude eta taberna bakoitzak terrazarako espazio desberdina daukanez, zer aukera dauden aztertu beharko dela azaldu du Guillermo Oarbeaskoa +Dendakeko lehendakariak.

Iritzirik eta ekarpenak emateko +Dendak-en bulegora jo daiteke. Plateruen plazan daude, astegunetan, 19:00ak arte. ■ A.U.



Datorren barikura arte egongo da terraza berezia Herrian.



Merkatu plaza bultzatzen ahaleginduko dira baserritarrak

'Baserritik plazara' dioten mantelekin emango dute ezagutzera euren burua



Oraingoan, Durangoko merkatu plazan saltzen duten zortzi nekazariek egin dute bat ekimenagaz.

Zapatu honetatik aurrera 'Baserritik plazara' leloa daramaten mantelekin jardungo dute Durangaldeko nekazariek Durangoko merkatu plaza. Euren burua ezagutarazteko beharren hasi dira nekazari horietako batzuk: "Gure generoagaz eta sasoiari sasoiako produktuekin bakarrik beharra egiten dugun nekazariak gara", azaldu du Urdaspal Alberdik, nekazarien izenean.

Udalagaz eta merkatariekin hartu-emanetan hasi dira, baina, "zain egon barik, plaza bultzatzeko pausoak ematea" erabaki dutela adierazi du Alberdik. Merkatu plazan azken hogeita hamar urteetan baserritarren kopurua "erdira" bajatu dela adierazi dute neka-

"Udalagaz hartu-emanetan gaude, baina euren zain egon barik pausoak ematen hastea erabaki dugu"

zariak, eta "erosleak, berriz, gehiago". Indarra galdu badu ere, plaza zuzeneko salmentarako "oso leku interesgarria" dela diote, eta horregatik ikusten dute Durangoko plaza zaindu eta bultzatzeko premia.

Azaldu dutenez, azken 30 urteetan plazako baserritar kopurua erdira bajatu da; "erosle kopurua gehiago"

Leku falta

Salatu dutenez, Durangoko plazako baldintzak ez dira egokienak nekazariarentzat: "Lekuak ez daude adostuta, eta askok furgonetan generoaz gain mahaiaik ekarri behar izaten dituzte plazan lekuri ez daukalako". Alberdik azaldu duenez, baldintza horiek hobetzeko eskaria egin dute nekazariek, eta laster udalagaz batzartzekotan dira. ■ A. Ugalde

GARAI

Wi-fi konexioa herri osoan zabaldu gura dute

Internet konexioa ordaindu egin beharko da, eta herritarrek alta eman beharko dute zerbitzuan

Garaiko Udala herrian internet zelan zabaldu aztertzen dabil, eta wi-fi konexioa erabiliko du horretarako. Antzadenez, hainbat herritarrek arazoak izan dituzte seinalea lortzeko, eta horregatik hartu dute erabakia ordezkariek.

Instalazioa, martxan jartzea eta mantenimendua kontuan har-

Oraingoan antenak non jarri aztertzen dabilta; zortzi antena txiki izango ei dira

tuta, 9.500 euroko aurrekontua zehaztu dute; Udaletxean, Kultur Etxean eta frontoian dagoeneko badago konexioa.

Ordaindu egin beharko da

Kultur Etxean internetera konektatu gura duenak doan egin ahal izango du, baina herri osora zabaldu gura duten konexioa ordaindu egin beharko da. Herritarrek alta eman beharko dute zerbitzuan.

Oraingoan antenak non jarri aztertzen dabilta; zortzi antena txiki izango ei dira, auzune guztietan konexioa ziurtatzeko. ■ M.O.

ELORRIO

Kiroldegiko teilatua aldatuko dute udazkenean

Obrek ez lukete kiroldegiko martxan eragingo eta 240.000 euro inguruko gastua izango dute

Haizeteek eta txingor egunek behin baino gehiagotan arazoak eragin dituzte Elorrioko kiroldegiko teilatua. Aurten teilatua berriztea onartu dute udal aurrekontuetan, eta lanen proiektua idazteko lana Estudio K enpresari esleitu dio udalak hile honetan, 10.761 euroko aurrekontuagaz.

Niko Moreno alkateak azaldu duenez, teilatua udazkenean aldatzea aurreikusitako da, eta 240.000 euro inguruko kostua izango du obrak. Teilatuko lanek kiroldegiko martxari ez diotela eragingo nabarmendu du.

Ondare Ibilbidea argizatzea
Ondare Ibilbideko monumentuak argiztapen bereziagaz nabarmentzeko egitasmoa ere aurrekontuetako asmoetako bat da. Argiz-

Ondare Ibilbidea zelan argiztatu aztertuko proiektua esleitu du udalak

tapena zelan ipini pentsatzeko lan tekniko esleitu dute, eta gero proiektua exekutatzeko dirulaguntzak eskatu dituzte. ■ A.U.

Ferixa Nausikoetarako kartel lehiaketa martxan da

Ekainaren 10a ipini dute muga Ferixa Nausikoetarako kartel lehiaketara lanak aurkezteko.

Irailaren 2tik 11ra izango dira aurten jaiak, eta, iazko legez, kartela aukeratzeko erakusketa ipiniko dute lehenengo. Ekainaren 20tik 30era Iturri kultur etxean egongo dira kartelak, herritarrek euren botoa emateko. Gero epaimahai tekniko batek erabakiko du zein izango den kartel irabazlea.

Lehiaketako saria 500 eurokoa da. Lehiaketako oinarrien eta jakingarrien berri kultur etxean eskuratu daiteke. ■ A.U.

AURREMatrikulazio DATAK

Heziketa Zikloak: ekainaren 1etik 11ra

- DBH
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Curriculum desberdinak eratzeko programak
- BATXILERGOAK:
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleantza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleantza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)
- HEZIKETA ZIKLOAK
 - Erdi mailako heziketa zikloak: Landa inguruneko Garputz eta Kiroi Ekintzen Gidartza (D eredua)
 - Goi mailako heziketa zikloak: Garputz eta Kiroi Ekintzen Sustapena (D eredua)

IG institutua
Durango

Fra. Juan de Zumarraga, 21-23
48200 DURANGO (Bizkaia)

Tel: 94 657 10 60 - 94 681 73 25
Fax: 94 681 02 58

e-posta: jzumarraga@euskainet.net
web: www.durangokoinstitutua.com

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK





DIURRETA

AHTa egiteko lanetan "delitu zantzuak" ikusi ditu epaileak

Bilboko Entzutegi Probintzialak Orozketako kasua aztertu behar dela esan du

Abiadura Handiko Trena egiteko Orozketako lanetan "delitu zantzuak" egon daitezkeela adierazi du Bilboko Entzutegi Probintzialak. Auzokideek eta AHT Gelditu! elkarlanak Etxaran erreka kutsatu zenean, duela urte bete, zabortezi zahar bateko lurrak mugitzean "ezelako legezko prozedurarik jarraitu barik" jokatu zutela salatu zuten, eta orain Entzutegi Probintzialak kasua aztertzea erabaki du.

Entzutegiaren erabakia jakin ondoren prentsaurrean agertu dira auzokideak, eta administrazioei ardura hartzeko eskatu die-

te, Orozketan eta orokorrean AHTko lanen inguruan "legez kanpoko jarduerak salatu eta ikertzeko".

Hasieran auzokideen kereila artxibatu egin zuen Durangoko Instrukziozko 3. Epaitegiak. Entzutegi probintzialak orain adierazi duenez, "baimen administratiiboak ondo egon arren, posible da delitua egotea". Auzokideek salatu dutenez, "zabortezi metal astunak, kotxeak, bateriak... zeu-

den, eta gainetik buztina bota zuten. Euriagaz kutsadura hori guztia errekarra joan zen".

Etxaran erreka laginak "udalak berak ere" hartu zituela salatu dute; "baina gero ez zuten ezer egin", diote. Ardurak hartzeko eskatu dute: "Instituzioen lana obrak kontrolatu eta herritarrak babestea da".

Protestak

Trenaren lanak salatzeko, AHT Gelditu! elkarlanak ekainaren 4an mendi martxa antolatu du Elorrion, eta hilaren 11n manifestazioa Arrasaten. ■ A.Ugalde



Lanak euren bizimodua aldatzen dutela azaldu dute auzokideek.

Okela eta Ardao Eguna ospatuko dute zapatuan

Umeentzako tailerrak ere eratu dituzte, aurten; 11:30etik 13:30era bitartean izango dira

Okela eta Ardao Eguna ospatuko dute, zapatuan, Askondo plazan. Zortzigarrenez antolatu den azokak 11 upategi batuko ditu, aurten, eta umeentzako tailerrak ere bai; 11:30etik 13:30era bitartean, aurpegia margozteko eta pinak

Arabako Errioxako Upategien Elkarteagaz antolatu du azoka lurretako Udalak

Zortzigarrenez ospatuko den azokak 11 upategi batuko ditu Askondon

egiteko aukera izango dute etxeko gaztetxoek, antolatzaileek jakin eragin dutenez.

Arabako Errioxako Upategien Elkartearen laguntzagaz antolatzen dute 11:00etan zabalduko den azoka. Bertan, Arabako Errioxako hainbat ardo dastatzeko aukera izango dute bertaratuko direnek; horretarako 2,50 euroan kopa erosi ahal izango dute.

Bildotsa burduntzian

Gura beste ardo probatu ahal izango da Askondon jarritako erakustokietan. Burduntzian egindako bildots pintxoak jateko, berriz, 1,5 euroan erosi daiteke txartela, antolatzaileek azaldu dutenez.

ATXONDO

Anbotoperen errekurtsioak atzera bota ditu epaileak

Anbotope elkartearen eta Atxondoko Udalaren arteko epaiketak amaitzeaz daude. Udalak lokaleko alokairu kontratua amaitzea erabaki zuenean jo zuen lehenengo Anbotopek epaitegiara, prozeduran akats bat zegoela argudiatuta. Kaleratze agindua onartu ez zuten, udalarko zibiletik beste prozedura bat hasi zuen.

Sententzia biek udalari eman diote arrazoia, eta Anbotoperen errekurtsioak aurkeztu ditu. Duela hile gutxi lehenengoa eta asteon bigarrena, errekurtsioak atzera bota ditu epaileak. Laster lokala uzteko data berria ipini dio elkarteari. ■ A.U.

OTXANDIO

Zabuguneak atontzeko partaidetza bultzatu dute

Guraso eta umeen iritzia batu dituzte herrian egokituko dituzten zabuguneen gainean

Andresa Landa Fundazioak emandako diru-laguntzari eskerrak, zabuguneak ipintzen dabilta Otxandion. 35.000 euro xahutzea aurreikusitako diru-laguntza, eta bi lekutan egokituko dituzte umeentzako jolaserako leku horiek; Andresa Landa moduan ezagutzen den eraikinaren ondoan bata eta Mainondoko eskolan bestea.

Hala ere, udalak izaera berezia eman dio egitasmoari, eta parte-hartzea bultzatu du zer zabu eta zelan ipini zehazteko. "Guraso Elkarte, eskola eta udalaren arteko elkarlanean hartu ditugu erabakiak, eta umeek ere

izan dute euren iritzia emateko aukera", Aritz Otxandiano alkateak azaldu digunez; "ekimen honegaz, zabuen erabiltzaile izango diren eragileen parte-hartzea bilatu gura izan dugu", argitu du Aritz Otxandiano.

Guraso Elkarte, eskola eta udalak elkarlanean jardun dute erabakiak hartzerakoan

Horretaz gainera, gune horietan, lurrean, hainbat joko margoitu dituzte. ■ M.O.

Bigarren Hezkuntzako Institutua
A eta D ereduak

AURREMATRIKULA

Zikloak:
Ekainaren 1etik 10era



ONGARAI AUZOA Z/B. 48260 ERMUA (BIZKAIA)
943 17 62 57

OTAOLA HIRIBIDEA, 29. 20600 EIBAR (GIPUZKOA)
943 20 84 44

UNI@IESUNIBI.COM

Batxilergoa
BATXILERGOA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
GIZA ZIENTZIAK ETA HUMANISTIKOA

Goi mailako prestakuntza zikloak
GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NAZIDARTEKO MERKATARITZA
AKTIBITATE FISIKO ETA KIROL ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA SAREEN ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

Erdi mailako prestakuntza zikloak
ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK
MERKATARITZA

Arautu gabeko heziketa
ARAUTU GABEKO HEZIKETA

HEZIKETA JARRAITUA
ZEREGINETAKO HEZIKETA
ESKAINITZA PARTZIALA

MA LLABIA

A.P. Ibericako langile ia denak greban daude astelehenetik

Oraindik 2009ko Hitzarmen Kolektiboagaz jarraitzen dutela salatu dute



Egunero 08:00etatik 17:15era enpresaren aurrean batzen dira langileak.

Goitondo auzoko industria-gunean dagoen Automotive Products Iberica enpresako 30 langileetatik 22k greba mugagabea hasi dute. 2009tik Hitzarmen Kolektibo beragaz dabiltzala salatu dute, esaterako.

ELA sindikatuko Iñaki Arrietaren esanetan, hitzarmenean eskatu duten "aldaketa bakarra" soldata igoera izan da: "Beste guztia dagoen legez uzteko prest gaude". Bigarrenik, azken hiru urteetan enplegua erregulatzeko bost

espediente egon direla dio, eta soldaten kobraketan "hile biko atzerapena" dutela. Azkenik, bost urtean lanean ibili den emakume bati kontratua amaituko ei zaio asteon, eta "kaleratzerik ez egotea eskatzen dugu".

"Greba amaitzen duten unean bertan negoziatzeko prest" dagoela dio zuzendaritzak

"Ez dugu inor kaleratu" Enpresako bazkide Jose Luis Solagurenkez dutela inor kaleratu dio: "Praktiketako kontratua zuen eta ez berritzea erabaki dugu". Hitzarmenari buruz "extraofizialki kopuru batzuk" zebiltzabela eta negoziazioan "beste batzuk planteatu" zituztela dio: "Guk kontrako eskaintza egin genuen eta harrezkerro ez dakigu ezer. Greba uzten duten unean bertan negoziatzeko prest gaude, baina ez greban dirauten bitartean". ■ J.Derteano.

MAÑARIA

Esleitu dituzte kultur etxea egokitzen amaitzeko lanak

Udal gobernuaren berbetan, 109.000 euroko aurrekontuagaz arituko dira

Hiru enpresak aurkeztu dituzte euren proiektuak udalak deitutako lehiaketara, eta udalean azaldu diguten arabera, 109.000 euroko aurrekontuagaz burutuko dituzte kultur etxea guztiz atontzeko geratzen diren lanak.

Obrak irailean hasia aurrekusi dutela adierazi digute udalean, eta urtea amaitu orduko gura dutela erabilgarri egotea.

Besteak beste, igogailua eta eskailerak ipiniko dituzte, eta azkeneko ukituak emango dizkiete solairu biei: margo eta argiztapen lanak ere burutuko dituzte.

Hiru enpresa aurkeztu ziren lanok burutzeko udalak antolaturiko lehiaketara

Obrak irailean hasia aurrekusi dute, eta urte amaierarako lanak amaitzea

Lehenengo eta bigarren solairuetan kultur etxe bezala erabiltzeko ehundik gora metro karratu daude; kultur emanaldietarako zein elkarten bilgune bezala erabiltzeko lekua dago.

Urteko inbertsio nagusia Iazko urte amaieran, 2011 urte honi begira udalean onartu zuten udal aurrekontuan ere jaso zuten "kultur etxeko bigarren faseko obretara" bideratuko zuela udalak inbertsio nagusia aurrekusi: "igogailua ipini eta obrak amaitzeko" zen, zehazki, diru-atala. ■ I.E.

DURANGALDEA

Tabako Gabeko Eguna ospatuko da martitzenean

Durangoko Ezkurdi plazan standa ipiniko du Amankomunazgoak informazioa emateko

Maiatzaren 31 Tabako Gabeko Eguna da nazioartean, eta hori dela-eta Amankomunazgoak Drogomenpekotasunen Prebentziarako Zerbitzuak hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Amankomunazgoak eskaintzen dituen ikastaroen informazioa emango dute

Martitzen arratsaldean Durangoko Ezkurdi plazan standa ipiniko dute tabakoa erretzeak eragiten dituen ondorioen gaineko informazioa eskaintzeko. Erreztzeari uzteko Amankomunazgoak

antolatzen dituen ikastaroen inguruko informazioa ere emango dute, eta eurretan izena emateko aukera egongo da Ezkurdin bertan. Arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara egongo da standa herritarrentzat gertu.

Tailerrak

Aste honetan eskualdeko ikastetxeetan landu dute tabakoaren gaia, Drogomenpekotasunen Prebentziarako Zerbitzuko adituen laguntzagaz. Esperimentuen bitartez, tabakoak gorputzean eragiten dituen ondorioak ikusi dituzte Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek. ■ A.U.

ABADIÑO

Gantza-Zelaietan eraikiko dituzten 54 etxebizitzak zozketa

Gobernu taldeak aurreratu duenez, ekainaren 15ean burutuko du Eusko Jaurlaritzak zozketa

Udalak komunikabideetara zabaldu duten oharrean esaten denez, 98 abadiñarren artean zozkatuko ditu Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko 54 etxebizitzak. Gantza Zelaieta inguruan eraikiko dituzten babeseko etxebizitzak hauen zozt egitea, ekainaren 16an, probalekuan egingo dute, 11:00etan.

Ekainaren 15ean, 11:00etan, Zelaietako probalekuan egingo dute zozketa

Zozketaren hitzordua zehazten duen idatzian Jose Luis Navarro alkateak azpimarratu duenez, "esleipen hau egin eta gero babes ofizialeko beste 20 etxebizitza zozt egitea du udalak aurreikusita". Traña-Matienan, Errota kultur etxearen eta Pierburg enpresaren artean eraiki gura dituzte babeseko etxebizitza horiek.

Ekainaren 15eko zozketa ere, beheko argazkiko urrikoa bezala, Zelaietako probalekuan burutuko du Jaurlaritzak. ■ I.E.



Urriari zozkatu zituzten Muntzarazko 69 etxebizitza.

gremioen koordinazioa
urtiaga
Baimugelarako konpaini entziak eta berogailuak
szulojo, zotadura, tella, zoramika, hormigoi
enbarketa, salmenta eta igintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ fax 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

goizeko 08:00etatik
guzteko 21:00etara
zobolik
clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría
{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
maruetaurre bideko 2 - C. bajo 48200 Durango Tel: 94 681 99 51



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

Orain da garaia!

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

GOI MAILAKO ZIKLOAK

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA

OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA

AURREMATRIKULAZIO EPEA **EKAINAREN 1** ETIK **10** ERA

eman izena!



943 77 20 25

WWW.ARIZMENDIPRO.EU



PRO

Arizmendi
ikastola

BERBAZ >

“Erretzeari uzteko orduan, ondo dator antsietateak zelan eragiten duen jakitea”

Bi pakete erretzetik zigarrorik ez piztera pasatu da Anton Bikandi tabernaria. Tabakoa uzteko ikastaro batek lagundu dio

Oso-osorik guztiak ez zituen erreko, baina, Anton Bikandik duela gutxi arte 50 zigarro isiotzen zituen egunean. Tabernaria da bera, barra ertzean hainbat urtean dihardu beharrean. Tabakoaren kontrako legea dela-eta, erretzeari uztea erabaki zuen. Ikastaro baten laguntzagaz lortu du. Aitortu digunez, baina, egunero izaten du “bitxoa”-ren tentaldia.

Urte askoan izan zara erretzaile?

Duela hogeita hamabost urte hasiko nintzen, gutxigorabehera. Asko erre izan dut, gainera; egunean 50 bat zigarro, purutxoak aparte. Eta oraindik erretzaile naizela pentsatzen dut... Egunero eskatzen dit gorputzak erretzeko; droga gogorra da.

“Egunean 50 zigarro erreta, ezingo nuke tabernan lan egin kalera irteteko aukeren zain”

Zergatik erabaki zenuen tabakoa uztea?

Tabakoaren Kontrako Legea ipini zutenean, derrigorrez utzi behar izan nion. Tabernan lan eginda, ezin nien bezeroei ez erretzeko eskatu eta nik erre. Egunean zortzi zigarro erreko banitu, kalera irten ninteke, edo ezkutuan ibili, umeen moduan. Baina 50 erretzen nituen; onena uztea zen. Bestela, denbora guztian egongo nintzateke kalera irteteko aukera noiz edukiko pentsatzen.

Kolpean utzi zenuen?

Bai. Legea sartzeagaz batera. Egun batean bi pakete erre nituen, eta hurrengoan zigarro bat ere ez.

Hasieran txarto pasatuko zenuen...

Egun guztia tabakoan pentsatzen ematen nuen! Ernegatuta ibiltzen nintzen; antsietateak jota, egun guztia jaten ematen nuen... Lehenago, goizero, jaiki eta segituan erretzen nuen lehenengo zigarroa. Hori ez egiteko goizetan mendira joateari ekin nion, baina handik bajatzera-koan, ezin nuen erre barik iraun; harrapatzen nuen guztia jaten nuen! Horregatik erabaki nuen medikura joatea laguntza eske. Hark erretzen uzteko ikastaroen berri eman zidan, eta ondo joan zait.

Orain umore onez ikusten zaitut.

Erdi kontrolatuta daukadala uste dut. Lehenago, denbora guztian nengoen horretan pentsatzen. Orain



“Estatistika eta argazkiak erakutsi ditzakezu, baina norberak bere azalean tabakoaren kalteak igarri ezean gaitza da erretzeari uzteko erabakia hartzea”

erretzeko gogoa daukat, baina ezetz esaten diot nire buruari.

Zer ikasi duzu ikastaroan?

Ikastaroak daukanik onena jendearen esperientziak entzutea da, eta konturatzea denoi antzeko gauzak pasatzen zaizkigula; ez dela norbera bakarra. Eta barruan duzun “bitxoa” ezagutzen duzu; itzela da.

Zelakoa da “bitxo” hori?

Antsietateari “bitxo” deitu diogu ikastaroan. Ez gara konturatzen barruan daukagula, baina hor dago eta asko laguntzen du “bitxo” horrek

zelan jokatzeko duen ikusteak. Denok antzeko etapak pasatzen ditugu: “Zigarro bat bakarrik hartuko dut, horrek ez du ezer egiten” lako kontuak pentsatzen ditugu; batzuetan haserre gaude, bestetan triste, lagun bat galdu bagenu moduan... Antsietatearen prozesua ezagututa, prest zaude etapa horiek datozenerako. Esaten ziguten bitxoari ez zaiola “agur” esan behar, “gero arte” baino. Sekula gehiago ez duzula erreko pentsatzen baduzu, gogaitu egiten zara; “Zelan egongo naiz bizitza osoan hain txarto pasatzen?”, pentsatu dezakezu. Aldiz, zure buruari

Anton Bikandi •

- Jai Toki-ko tabernaria
- Tabakoaren kontrako legeagatik utzi dio erretzeari

“Gaur ez, bihar erreko dut” esaten badiozu, bihar berdin esan dezakezu, eta antsietatea kontrolatzen laguntzen dizu ideia horrek. Kanpikada deitzen diotena ere badago: lasai zaudela bat-batean etortzen den antsietatea. Ondo dator horiek gauzak jakitea eta esperientzia bera bizi duen jendeagaz berba egitea.

“Datozen belaunaldiek ez dute tabakoagaz guk besteko biziorik izango”

Tabakoaren kontrako legeagatik utzi diozu erretzeari. Zer iritzi duzu legeari buruz?

Jende askok erretzeari utziko diola uste dut, edo gutxiago erreko duela. Baina uste dut kolpean barik apurka-apurka debekatu behar luketeela erretzea. Tabakoaren kontrako legea datozen belaunaldientzako izango da ona. Beste bizio batzuk izango dituzte, baina tabakoarena, guk eduki dugun moduan, behintzat, ez. Gu 14-15 urteagaz hasten ginen erretzen, eta gizonago ginela pentsatzen genuen!

Erretzaile batzuei ez zaie burutik pasatu ere egingo tabakoa uztea. Zer gertatu behar da erabaki hori hartzeko?

Norbera fisikoki txarto ez bada sentitzen, tabakoak kalte egiten diola ez badu igartzeko, oso konplikatu da. Argazkiak eta estatistikak erakutsi ditzakezu, baina kalte horiek bizi arte oso gaitza da jendeak erretzeari uzteko erabakia hartzea. Nire kasuan, lege honengatik ez balitz erretzen jarraituko nuke. Gehiago esango nuke, legea kenduko balute, beharbada, berriz ekingo nioke. Ez nuen kalte fisikoki somatzen.

Abantailak igarriko dituzu, baina.

Mendira joateko ohitura hartu dut, eta ikusi dut hobeto hartzen dudala arnasa. Fisikoki hobeto sentitzen naiz, bai. Hori egia da. ■ A.Ugalde



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47


Astelehenetan itxita. Aste bitartean menu berezia 16 euro, 18e/ardoa, 20e/kriantza. Afariak egunero astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.


Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo z/g, Berriz
Tel.: 94 682 40 27


Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erretea

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Goiuria Jatetxea

Goiuria auzoa, 21 Iurreta
Tel.: 94 681 08 86

Jatetxe guztiz berriztua. Eguneko menuak. Asteburuko menu bereziak.
Karta. Ospakizunetarako menuak: ezkontzak, enpresa bazkariak,...
Aurrekontu guztietarako menuak.

KULTURA[>]

ARGAZKIGINTZA > ERAKUSKETA

Zalóa Fuertes en argazki lanak, denboraren eraginaren isla

Mexikon diplomatu zen Zalóa Fuertes argazkigintzan, eta ekainaren 1ean, gaur egun bizi den Abadiñoko Zelaietako liburutegian ipiniko duen **RAM Memoria** izeneko argazki erakusketa aurkeztuko du 19:30ean

Lehenengo aldia da erakusketa batean parte hartzen duzuna?

Ez. Aurretik Mexikon, Queretaron egin nituen. Gurasoak euskaldunak ditugu, baina ni eta nire neba han jaio eta bizitakoak gara, eta bertan egin nituen lehenengo bi erakusketak. Kaleko umeei buruzkoa izan zen lehenengoa, bertako ume askoren umetasun faltaren ingurukoa: jolasean ibili beharrean, lanean hasten direnekoa. Bigarren erakusketa *Interailean* egin nuen bidaiari bateko argazkietan oinarritutakoa izan zen. 2003-2004 urteen inguruan izan ziren lehenengo erakusketa haiek.

“Kaleko umeei buruzko erakusketa egin nuen Mexikon”

Abadiñoko erakusketarako aukera zelan sortu zaizu?

Irailetik parte hartzen dudana Berbalagunen proposatuta antolatuta dugu. Euskaldun zahar eta berriak elkartzen gara Berbalagunen, eta giro oso polita sortzen da eguaztenetako hitzorduetan.

Ekainaren 1eko aurkezpena prestatuta daukazu?

Argazkien inguruan egingo dut apur bat berba: sormen prozesuari buruz. Baina, egia esan, argazki bakoitzak zer esangura daukan ez dut nik esango: ikusle bakoitzak bere inpresioa eramatea da gura dudana. Argazkiak leku edo egoera ahaztuei buruzkoak dira: baserri inguruak, kale izkina zaharrak... Denboraren eragina erakusten dute argazkiek.

Izenburuak ideia horri egiten dio erreferentzia?

Hortik doa *RAM Memoria* erakusketaren izenburua, bai: sarritan geuk konturatu ez arren euren eboluzioa jarraitzen duten gauzei

buruzkoa da erakusketa: bizirik dagoen memoriari buruzkoa. Argazkietako horma eta txoko gehienak Durango, Abadiño eta Elorriokoak dira, eta badaude Mexikon eta Txilen egindakoak diren argazki bi ere.

Zer berezitasun dute erakusketako irudiek?

Goroldioa, hormetan hazitako landareak... Egia esan, ez naiz iraganari begira egotearen oso zalea, baina denboraren eraginak jaso gura izan ditut argazkietan. Batzuetan triste da, beste batzuetan argi apur bat sortzen du. Ahaztutako izkinak ageri dira argazkietan, bizi garen erritmo azkar honetan galtzen hasi garen ohi-turak, atzean uzten gabiltzan sako-neko gauzak... Orain pare bat hile egindako argazkiak dira.

Zein izan da lan egiteko modua?

Ehundurekin zeozer egiteko gogoa neukan oraingoan, eta Durango eta Elorrioko leku batzuk begiz jota neuzkan. Argazkiak ateratzen hasi nintzen, eta baserrietan lotuta edo kairoletan bizi diren animaliei arreta jartzen. Ondoren, Photoshop-ekin esperimentatu dut. Pertsonen lan egitea dut gustuko, baina abstraktuagoak, plastikoagoak dira erakusketa honetako argazkiak.

Bietatik zer prozesu duzu gura-gura? Argazkiak egiteko momentua ala ondoren ordenagailuagaz lan egitea?

Biak gustatzen zaizkit asko. Lehen gehiago egiten nuen kamera hartu eta besterik barik kalera irten. Karrete mordo bat botatzen nuen.

“Analogikoan egin, eskaneatu, eta gero tratatzen ditut”



Kamera analogikoagaz egindakoak dira argazkiak?

Bai. Analogikoaren zalea naiz. Ondoren, eskaneatu eta digitalan tratatzen ditut. Hamabost dolarreko formatu erdiko Holga kamera zahar batez egindakoak dira erakusketako argazki hauek. Oso kamera interesentea da, izan ere, argia sartzen uzten duelako belatu egiten du negatiboan, ez du irudi guztia berdin enfokatzeko. Efektu arraroak sortzen ditu.

“Argazkiak leku eta egoera ahaztuei buruzkoak dira”

Zergatik analogikoa?

Zain egote hori gustatu egiten zaidalako. Zer irtengo den zain egote hori galdu egiten da digitalagaz.

Koloretan egindakoak dira erakusketakoak.

Bai, lehen dena zuri-beltzean egiteko joera neukan, baina oraingoan koloretan gura nuen egin. Zuri-beltzean eta koloretan egindakoak bata bestearen gainean ipinita ere badaude. ■ I. Esteban


Negatiboak, maletak eta sorkuntzarako bidaiak

Ekainaren 1etik Zelaietako liburutegian ikusgai izango den erakusketa iragartzen duen kartelean jasotako aldameneko irudia, astoarena, Mexikon egindakoa dela kontatu digu Fuertesek.

Hain zuzen ere, Mexikon bizi zela egindako argazkien negatiboak zekartzan maleta galdu egin zion hegazkin konpainiak: “material guztia maleta batean galdu zitzaidan...”, azaldu digu.

“Pena izan zen, baina gauza berriak sortzeko ondo etorri zitzaidan!” dio baikor.

Mexikon eta Durangaldean ezeze, argazkigintza lana egiten hainbat tokitan jardundakoa da Zalóa Fuertes: Zazpika aldiakarian argitaratutako erreportajeak osatu ditu, esaterako, Patagonian edo Kuban. Interneteko www.zaloafuertes.com helbidea da bere lanen erakusleho.



ANTZERKIA > EMANALDIAK

Banarteren tailerlean sortu duten obra aurkeztuko dute

Errotan gaur eta ekainaren 2an Plateruenean eskainiko dute '...Y lloverá?'

Gaur iluntzean burutuko du Abadiñoako Banarte antzerki taldeak sortu duten azken obraren aurkezpena. Hirugarrenez antolatatu duten antzerki tailerreko kideek sortutakoa da gaur, 19:00etan hasita, Traña-Matienako Errota kultur etxean aurkeztuko duten *¿...Y lloverá?* izenekoak.

Eva Guerrero saioen dinamizatzailerak zuzendu du lana, eta tailerlean parte hartu duten sei antzezleren lanean dago ardatz-tua: Sara Loiti, Yolanda Barco, Alejandro Jon

Abadiñoako antzerki taldeak sustatzen duen tailerren hirugarren edizioaren uzta

Urbano, Aitor Coello eta Arantza Arin dira *¿...Y lloverá?* obraren protagonista nagusiak. Egileek azaldu dutenez, Jorge Carraganen *La lluvia* lanean dago ikasturte honetan prestatu duten hau oinarrituta. Denboraren iragaiteari buruzkoa da sortzaileek azaldu dutenez lana; "gure bizitzetatik aldentu ostean berriro bidean agertzen zaizkigun pertsonen, egin ez genuena zalantzan ipintzeari buruz...", besteak beste.

Gaurko Errotako emanaldiaren ondoren, ekainaren 1ean Eibarko Coliseo antzokian eta ekainaren 2an Durangoko Plateruenean ere eskainiko dute.

Banarteren antzerki tailerlean sortutako *¿...Y lloverá?* lanean, sei pertsonaia ageri dira eszenan, baina hiru pertsonalitate desberdineko bi pertsona dira ardatz. "Bigarren aukerei, maitasunari, hustasunari, barkamenari, eta beste hainbat sentipenei buruzko gogoeta da *¿...Y lloverá?*". ■ I.E.



MUSIKA > EMANALDIA

Jazzaren zortzigarren gaua ekainaren 3an Plateruenean

Durangoko Plateruenean izango da datorren barikuko Jam Session saioa. Jazz musika zaleen, izan musikari zein entzule, elkargune izango da zita

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolak eta Plateruena elkarlanean eta helburu zehatzagaz antolaturikoa da ekainaren 3ko Jam Session saioa: Durangaldeko jazz musikaren zaleen, musikarien zein entzuleen, bilgune bihurtzea antzokia.

Azken urteetan egin duten eran, musikari gonbidatuek zabalduko dute datorren barikuko Platerueneko emanaldia ere: Juan Ortiz piano-jotzailea eta Marcelo Escrich kontrabajista gonbidatu dituzte oraingoan.

Juan Ortiz piano-jotzailea eta Marcelo Escrich kontrabajista gonbidatu dituzte barikurako

Ondoren, aipatutako jazzlariek gaua berotu eta gero, parte hartu gura duten musikari guztiei zabalduko diete Platerueneko eszenatokia. Horixe baita Jam Session-en muina: gura duten musikari guztiek espontaneoki parte hartu ahal izatea zuzeneko musika emanaldian.

Besteak beste, pianoa, saxofoia, tronboia, tronpeta, gitara eta bateria elkartuko dira oholtzan, jazz estruktura jakinaren gainean euren eskaintzera.

Musika eskolan ikasle direnak, izan direnak edo eskolarekin loturarik ez daukatenak ere batzen dira Platerueneko jazz gauetan, irekitasuna baitu gauak ezaugarri nagusi. Musikarientzat zein zaleentzat hitzordu berezia da ekainaren 3koa: musikarientzako beste musikari batzuk ezagutu eta eurekin jotzeko aukera da, eta doinuekin gozatzekoa zaleentzako. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustingo kudeatzailea

Kurutziaga ikastola 25 urte antzerkia sustatzen

Kurutziaga ikastolak 25 urte daramatza antzerki tailerarekin, urtero ikuskizun bat prestatuz DBHko 2. mailako ikasleekin. San Agustinekin harremana duela 11 urte dira, entsegu eta emanaldietarako aretoa erabiltzen hasi zirenetik. Handik gutxira, ikastolako guraso batek hitz batzuk idazteko eskatu zidan, proiektuaren ikuspegi pedagogikoz nuen iritzia azalduz; hona orduan idatzitakoaren zati bat: "Bizipen hau ikastolakoekin partekatzen hasi nintzenetik, jakin badakit halako proiektu batek dedikazio handia eskatzen duela, lan ordu asko sartu behar direla, talde lana eta kideetasuna ezinbestekoak direla, baita, albokoaren lana errespetatzen jakin behar dela ere. Gainera, 'benetako' areto bat barrutik ezagutzeko aukera eskaintzen du, horrek, ordea, aretoa zaintzeko ardu eta erresposabilitatea ere eskatzen ditu. Sorkuntza prozesua hutsetik abiatu eta argiz, doinu eta testuz jantziz, teatroaren magiaz jabetzen dira gaztetxoak. Zalantza barik, kulturalki oso proiektu aberasgarria da"

Orain berriro ere irakurrita zaharkitua gelditu dela iruditzen zait, horretaz guztiaz gain, era honetako proiektuak Kultura Sustatzeko Tresna Osoak direla iruditzen zaidalako (halaxe, gainera, letra larri idatzita).

Aurtengoan, 25. urtebetetzea dela eta, atzera begirako erakusketa bat ere antolatu dute teatroaren hallean, eta ikasle ohiek Txotxeri omenaldi txiki bat eskaini diote. Argi dago Txotxe proiektu honen arima paterra dela; hala ere, lerro hauetatik proiektuaren bihotz materra ere azalarazi nahiko nuke: Elena, Amaia, Nekane eta Idoia, alegia, euren ekarpenarekin herri honetako antzerkia gorpuzten egin duten lan ikaragarriagatik. Eskerrik asko, boskote, bihotz-bihotzez.

BILBAO ASEGURUAK
Jatimi Fueda

CATAL'ANIA OCCIDENTE

Jose Antonio Aguirre Lehendakaria - 48200 Durango
Tel. 94 620 27 10 • Fax: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEDIMORFOAK, BURRIAK, JANTZIMISAK, ANHATZAK, ARKARUSCIAR, ERILAK...

Hurriza, 42 - 2. o. - Tl./Fax: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

ALBORDI
HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1
TE: 94 681 76 58
48200 DURANGO

HARATEGIA HARATEGIA - JANTZIMISAK
- Urtetik Harategia

ALBORDI
DURANGO



Lanerako Langile trebatuak



FPZ ZORNOTZA
 FERRI PS ESTROIO-
 RE KOBRAKOHETZAKO
 ZENTROA
ZORNOTZA
 KANTABRIAN
 49300 ZORNOTZA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.
- Web Aplikazioen Garapena.
- Ekipo Industrialen Mantenua.

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Makineria eta Linea - Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Goldaragintza.
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.

ESKANTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Goldaragintza.

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

DATAK

Aurrematricula: Ekainak 1etik 10era

Matrikola: Uztailak 5etik 11ra

Ziklo guztiak Euskaraz eta Gazteleraz

Idazkaria: Eusko Lanbideak | Tfno: 94 673 02 51

Tel.: 94 673 02 51

e-mail: info@fpzornotza.com

www.fpzornotza.com

MUSIKA > EMANALDIAK

Tabira musika bandaren eta Elgoibarko dultzaineroen kalejira eta emanaldiak

Durango Euskal Astearen egitarauaren barruan jasota dago maiatzaren 28 iluntzeko kalejira eta kontzertua

Durango Udalak antolatzen duen eta joan zen asteburuan abiatu zuten Euskal Astearen egitarauaren barruan jasotakoa da, maiatzaren 28ko Tabira musika bandaren eta Elgoibarko dultzaineroen emanaldia.

Alde Zaharrean zehar kalejira egingo dute, eta elizpean kontzertua

Durango Alde Zaharrean zehar, 19:00etatik aurrera burutuko duten kalejiragaz zabalduko

dute egitaraua, eta 20:00etan Andra Mariko elizpean egingo dute emanaldia.

Miguel Arbelaitzek jardungo du bandaren zuzendari, eta Elgoibarko lau dultzainerok ere joko dute banda durangarragaz batera emanaldian.

Zortzi kanta jasotzen ditu egitarauak: kalejiran *Pelotari* kanta herrikoa eskainiko dute, esaterako, musika bandak eta dultzaineroek, eta Oskorri zein Iñaki Urkizuren sorkuntzak ere bai.

Bandak eskainiko dituen artean, Rugby taldeari eskainitako ereserkia eta *Maitetxu mia* zortzikoa daude, esaterako. ■ I.E.

ANTZERKIA > SARIKETA



Iurretako taldeak jaso du 'Zugan ni' sari nagusia

'Brionia' antzezlanaren aurkeztu duen talde iurretarrari eman zioten joan zen barikuko sari banaketan sari nagusia

Ikasturte honetan *Brionia* ikuskitzuna sortu duen Iurretako ikasle gazteen taldeak jaso zuen, joan zen barikuan Zornotza Aretoan egin zuten ekitaldian, Zugan Ni lehiaketako sari nagusia.

Sei taldek hartu dute aurten ekimenean parte: Durangoak, Elorrikoak, Igorrekoak, Iurretakoak eta Zornotzako bik.

Irati Iturrate antzezlearen gidaritzapean jardun dute iurretarek, eta etorkizunari irudimez begiratuta sortutakoa da *Brionia*: lurrikara eta uholdeen eraginez munduko hainbat herrialde desagertu ondoren, superpopulazio egoera batean abiatzen da lehiaketaren epaimahaiak saritu duen antzezlanaren. ■ I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIAK

Adinekoak protagonista dauzkan jardunaldia Durangon

Ukitu komikoa daukaten obra laburren bilduma da Gora ta Gora taldearen 'La terracita'

Biurterik behin Durango Udaleko Adinekoen Sailak eta Gora ta Gora antzerki taldeak sustatuta antolatzen duten zikloaren laugarren edizioa aurkeztu dute. Gernika eta Gasteizko gonbidatu dituzte aurten emanaldi eskaintzera, eta Durango taldeak emanaldi bikoitza eskainiko du; maiatzaren 28an eta 29an.

Hirugarren adina aktiboki bizitzeko aukera da antzerki tailerrak eskaintzen duena. Emaizta maiatzeko azkeneko aste honetan izango dugu San Agustinen: adinekoek eginak baina publiko zabalari zuzendurikoak diren antzerki obrak.



Azken urteetan taldea zuzendu duen Asuak egindako egokitapena

Ukitu komikoa daukaten obra laburren bilduma da Gora ta Gora antzerki taldeak maiatzaren 28an eta 29an eskainiko duen *La terracita*; azken zazpi urteetan taldearen zuzendari lanetan jardun duen Izaskun Asuak egokitutako Rafael Mendizabal eta Alvarez Quintero anaien testuak dira antzezlanaren testuaren oinarria.

EMANALDIAK

Maiatzak 27, 19:00

Paulo Freire EPAko antzerki taldearen, *Mamáááá* San Agustin kulturgunean.

Maiatzak 28, 20:00

Gora ta Gora taldearen *La Terracita*, San Agustinen

Maiatzak 29, 19:00

Gora ta Gora taldearen *La Terracita*, San Agustinen

Gernikako eta Gasteizko taldeek aurkeztu dituzte euren obrak asteen

Jardunaldien aurkezpenean azaldu dutenez, gaur egun Gora ta Gora taldea osatzen duten sei lagunek hartzen dute lanean parte: Anunciación Varas, Victoria Moreno, Pablo Romero, Jose M. Zamakona, M. Jose Blanco eta Pablo Romerok. ■ I.E.



Urte birik behin, lan berriren bat aurkezten

Jardunaldien aurkezpenean azaldu dutenez, gaur egun Gora ta Gora taldea osatzen duten sei lagunek hartzen dute asteburuan aurkeztuko duten lanean parte. Asua zuzendariagaz sei-zazpi urte daramatzen taldea da Durango Adinekoen Egoitzako taldea, baina taldekide batzuek 16 urte daramatzate elkarrengatik antzerkia egiten. Orain 16 urte aurkeztu zuten lehenengo antzezlanaren emanaldi batean egindakoa da ondoko argazkia.

Urte birik behin, aurreko urtean prestatutako lanak aurkeztu dituzte 1995etik, eta jubilatuen eta adinekoen egoitzetan eskaini izan dituzte gero.

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 27 20:00etan
HAUR KANTARI TXAPELKETA
Euskal Kantuzaleen elkartea. Sarrera doan

MAIATZAK 28 14:30ean
KANTULAGUN BAZKARIA
13:00 Kantuan kaleetan zehar

MAIATZAK 28 22:00etan
BEATSTEAKS + DYSE
KONTZERTUA. Sarrera: 20-25euro.

EKAINAK 2 20:00etan
¿...Y LLOVERA?
BANARTE ANTZERKI TALDEA. Doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

Adinekoek egindako
IV. ANTZERKI JARDUNALDIAK

LA TERRAZITA DE DOÑA PAULA
Gora Ta Gora Antzerki Taldea
Maiatzak 28 - 20:00etan
Maiatzak 29 - 19:00etan

MAMÁÁÁÁ
Paulo Freire EPAko Antzerki Taldea
Maiatzak 27 - 19:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776


HAUTESKUNDEAK >



Kepa Aginako

Bilduren agerpen indartsuak EAJren hegemonia apurtu du

Mario Zubiaga soziologoaren ustez, "zantzuak zantzu, aurreikuspen onenak gainditu ditu Bilduk"



2011	Errolda	Partehartzea	Abstenzioa	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Aralar	Indep. dienteak	EB	Balio barik	Zuriak
	46.475	30.841	%33,6	10.921	9.922	3.126	2.223	1.373	1.958	637	270	411

2007	Errolda	Partehartzea	Abstenzioa	EAJ	EAE	PSE-EE	PP	Aralar	Indep. dienteak	EB	Balio barik	Zuriak
	48.170	29.740	%29,7	9.131	7.072	3.802	2.459	1.559	1.894	705	358	1079

Asteon irrati batean egin dioten elkarriketan, Tontxu Rodriguez Barakaldoko alkate sozialistak puntu bi aipatu ditu PSE-EEren gainbehera arrazoi-tzeko: herritarrek udal kudeaketa behar-rean Gobernuarena bozkatu izana eta Bilduren bat-bateko "tsunamia". Euskal Autonomia Erkidegoan Bildu bigarren indarra da eta Durangaldean lehena bozkei zein alkatetzei dagokionez. "2007ko emaitzak ikusita zantzuak bazeuden, beraz, ez da hainbesteko sorpresa izan Durangaldean, baina, hala ere, aurreikuspen onenak gainditu ditu Bilduk", dio Mario Zubiaga soziologoak.

Bilduk Durangaldeko zazpi herritan atarra du boto gehien: Elorrio, Atxondo, Mañaria, Izurtza, Zaldibar, Otxandio eta Mallabian. Gainera, Elorrio ez beste denetan gehiengo osoz gobernatuko du. Oro har, Ezker Abertzaleak kudeaketa izan duen udaletan "sartuak" izan dira Zubiagaren ustez; Elorrio, Atxondo eta Otxandion, kasu. Elorrioren seina hautetsigaz berdinduta dau-

de Bildu eta EAJ; PPren huatetsiak desorekatu dezake balantza EAJren alde. Dena gertatu daitekeela onartuta ere "mugimendu horrek EAJri kostu politiko handia" ekarri diezaiokeela uste du: "Bilduk alkatetza errepikatuko duela esango nuke". Koalizioan EA eta Alternatiba izateak Bilduri ezkerrean zein eskumara hedatzea ahalbidetzen diola uste du Zubiagak: "herri batasunaren hazia da, alderdi zabala, sentsibilitate sozial asko batzen dituen, nahiz eta oinarri ezkerkiar eta abertzaleak eztaba daezinak izan".

PSE-EEren boto emaile asko etxean geratu dira, eta "ez dute euren hautesleagoa aktibatzen asmatu". Alde horretatik, "biktimizazioa ikuspegi sozialetik orain ez da sinesgarria", deritza Zubiagak, "eta ez dute diskurtso alternatiborik garatu".

EAJ erronkari eutsiz

EAJk erronkari eutsi diola uste du Zubiagak: "Berriz eta Durangon bazegoen ustea Bilduk botoetan parekatzea lortuko zuena; Berriz alkatetza lortuko zuela ere esaten zen. Bi herri horiei eutsi diete, beraz, emaitzak ez dira txarrak, nahiz eta euren udal historiko batzuk galdu; Mañaria, esaterako". Hala ere, dagoeneko EAJk "ez du indar hegemonikorik Durangaldean". Monopolioa bipolio bihurtu dela esn daiteke.

Aralarrek sortu den "soberanismo gune horretan dauka tokia", Zubiagaren ustez, definizio zabal eta horizontal horretan: "Orain pentsatu beharko dute zelan sartu plataforma zabal horretan. Hasteko, modu ona izan daiteke herrietan elkarlanari ekitea". ■ J.Derteano

"Biktimizazioa ikuspegi sozialetik ez da sinesgarria gaur egun, eta PSE-EEK ez du diskurtso alternatiborik garatu"

> Bideoa: www.anboto.org



Atxondoko Bildukideak garaipena ospatzen. J.de la Cruz



Abadiñon independentieek emaitza bikaina lortu zuten.



Zaldibarko Bilduko alkategaia pozik, emaitzak ezagututa.

HAUTESKUNDEAK

Bilduk lau batzarkide lortu ditu eta PSE-EE bakarragaz geratu da

EAJk eta PPK lehenago zeukatenari eutsi diote; Ezker Batuak, aldiz, zuen ordezkari bakarra galdu du



Batzar Nagusietarako bozketan abstentzioa %34koa izan da.

Durangaldea-Arratia barrutitik bederatzi batzarkide erabakitzen dira, eta, 2007ko hauteskundeetan legez, EAJk lau batzarkide lortu ditu. Bildu da bigarren indarr, hiru batzarkide lortu eta gero. PSE-EEK kolpe gogorra jaso du eta batzarkide bakarragaz geratu da, orain lau urte hiru lortu zituenean. PPK, berriz, lehendik zeukan bakarrari eutsi dio. Ezin dezake gauza bere esan Ezker Batuak, zuen batzarkide bakarra galdu egin du-eta. Abstentzioa %34koa izan da.

Durangaldeari bakarrik erreparatzen badiogu, Bilduk lortu ditu botorik gehien. EAJkorain lau urte baino 153 boto gehiago lortu du, baina Bilduk 223 botoren alde atera dio; nahiko parean biak ere. Batzar Nagusietarako sarritan "boto erabilgarria" deitzen dena nagusitzen da alderdi txikien kalterako.

PSE-EEK 800 bototik gora galdu ditu Batzar Nagusietarako eta PP mantendu egin dela esan daiteke, ehun boto inguru galdu dituen arren. ■ J. Derteano

2007ko emaitzak:

Errolda	EAJ	EAE	PSE-EE	EB-Aralar	PP	EA	Zuriak	Balio barik
48.170	10.013	6.001	4.585	3.089	2.923	1.121	511	975+6.001

2011ko emaitzak:

Errolda	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Aralar	EB	Zuriak	Balio barik
46.475	10.389	10.166	3.776	2.811	1.721	789	694	378



"Jendea nekatuta dago eta eredia aldatu gura du"

Urdaspal Bolinaga Durangoko Bilduren zerrendaburuak emaitza "oso onak" lortu dituztela azaldu du. "Inoizko emaitzarik onenak", Bolinagaren arabera. "Durangarrek aldeketa gura dutela" islatu ei da emaitzetan, eta, bere ustez, "aldaketa hori apurka-apurka ematen ari da". Legez kanporatzeen afera dela-eta, "Bildu kanporatuko balute zer egingo luketen begiratu daiteke orain".

Durangaldeari dagokionez, "emaitza hauek jendea nekatuta dagoela eta beste eredu bat gura duela erakusten dute", bere aburuz. Oso pozik agertu da eskualdean alkatetza ugari lortu dituztelako.



Gainerako alderdi denekin "berba egiteko prest"

Durangori dagokionez, "orain lau urte baino boto eta zinegotzi bat gehiago lortu ditugu; beraz, oso pozik gaude", adierazi du Alain Salterainek. Emaitzak ikusita, "orain arteko bideari jarraituko" diotela diote: "Herritarrek gudan ipinitako konfiantza lanagaz eta gogoz itzutzen saiatuko gara".

Durangaldeko datuei dagokionez, "lehenik herritarrek euren bozka demokratikoki eman ahal izan dutela azpimarratu gura dugu". Eman diren emaitzak "errespetatuko" dituztela diote: "Beste alderdiekin berba egiteko zein elkarrekin lanean aritzeko prest gaude".



Emaitzek "zapore gazi-goza" utzi diete sozialistei

Pilar Riosek azaldu duenez, "zapore gazi-goza" jaso dituzte emaitzak. Durangon lau zinegotzi edukitetik hiru izatera pasatuko da PSE-EE; Riosek nabarmendu du "emaitza duinak" direla, beste herri batzuetan "emaitza txarragoak" izan dituztelako. Hala ere, zinegotzi hori galtzea ez dutela merezi izan uste du: "Azken legegintzaldian lan asko egin dugu udalean, lan ona".

Emaitza txarrak "krisiaren eraginagatik" izan direla uste du Durangoko sozialisten zerrendaburuak: "Espainian eta Euskadin gaude gobernuan, eta hartutako erabakiak ez dira denen gustukoak izan".



Zinegotzi bat "berreskuratu" dutelako pozik

Durangaldean lortutako emaitzeekin, sentipen kontrajarriak adierazi dizkigu Gaztañazatorre zinegotzi durangarrak: "Tamalez, Durangon zinegotzi bat galdu dugu, baina oso garrantzitsua da Elorrion zinegotzia berreskuratu izana". Bestetik, PPK ordezkariak daukan Durangaldeko beste bi udaletan, Zaldibarren eta Iurretan, lehenago zeukaten sostengua "mantendu" izana ere oso ontzat jo du Gaztañazatorrek. Etorkizunari begira, bere alderdiak Elorrion hartuko duen jarrerari buruz ez du berbarik egin gura izan Gaztañazatorrek; "herriaren alde lan egiten jarraituko dugu", adierazi du.



"Oso argia" izan omen da Bilduren eragina

Dani Maeztu Durangoko zinegotzi eta Aralarren legebiltzarkidearen berbetan, "Bilduren efektua oso argia izan da, eta espazio gabe utzi gaitu".

Durangon ez eze, Elorrion eta Zornotzan ere aurkeztu du zerrenda Aralarrek; hala ere, Durangon baino ez du lortu ordezkariak. Boto kopuruan zerbait bajatu arren, Durangon azken legegintzaldian izandako zinegotzi biak mantentzea lortu dutelako "pozik" agertu da Maeztu.

Gainera, orain "bloke nagusi bi daude Durangon, abertzalea eta estatukoa; PP eta PSE-EEren artean izan ohi da jokoan zinegotzia eta, oraingoa, biek galdu dute bana".



"Barne krisia konpontzea" da orain lehentasuna

Jose Luis Zubillagaren arabera, emaitzak "txarrak" izan dira Bizkaian. Durangaldeko koordinatzailearen berbetan, Bildu alderdiaren sarrerak eragin "garrantzitsua" izan du emaitzetan. Horrez gainera, alderdiak bizi duen "barne krisia" azpimarratu du. Abstentzioaren jaitsiera ere nabarmendu du Ezker Batuko koordinatzaileak. "Orain lau urte baino boto gehiago jaso arren, ez dugu ordezkariarik lortu; jende gehiagok bozkatu duelako da hori".

Hemendik aurrera lehentasuna alderdia "barrutik konpontzea" izango da: "Lanean jarraituko dugu, lehengo emaitzak berreskuratzen".



Jasone Agirre irakaslea

Sor Juanita

Sor Juanita etorri zait burura. Moja alai eta barregarri hura, erdi italieraz erdi euskeraz egiten zuena. Gauzak okertu, konponbiderik ez daukatela, dena galduta dagoela uste denean, han, Probidentzia agertzen dela sinesten zuen biziki gure mojak. Pasadizoak kontatzen zizkigun, guk ere Probidentzian sinesteko. Eta, egia esateko, santuengan sinestea baino errezago egiten zitzaidan, itxaropenarako ate bat zelako Probidentzia bedeinkatu hura.

Lehenagoan, berrikerian nenbela, *probidentzia* berba bota nuen. "Jasaus, ezin dot sinistu!" bota zidan batek. Urteetan entzun barik zeukala, eta aste berean, Pello Zabalarilehenengo eta gero niri entzun zidala. Harrituta zegoen...

Twitter eta facebook-en sasoi "moderno" honetan gaude, eta neu probidentziak.

Lotsarik ere ez.

313 mila lagun horien fedea izan da, bai, Probidentzia, Sor Juanita

Hauteskundeotako emaitzok, Bilduren gorakada ikusita, barka iezaidazue, baina berba hori etorri zait burura berriro. Dena galduta zegoela zirudien, urtetik urtera gero eta zalagoo zen bidea Ezker Abertzalearentzat. Ezin botorik eman, eta milaka lagunek hautagai izateko eskubiderik ez. Eta orain, ia egun batetik bestera, dena irauli da. Ilusioa berpiztu eta bidean argia du Ezker Abertzaleak aspaldiko partez.

313 mila lagun horien fedea izan da, bai, Probidentzia, Sor Juanita.

Egun batetik bestera dena irauli da. Ilusioa berpiztu eta bidean argia du Ezker Abertzaleak aspaldiko partez

A close-up, low-angle shot of the front of a dark-colored car. The focus is on the left headlight, which has a prominent chrome bezel. The hood and fender curves are visible, with some light reflecting off the metallic surfaces. The background is blurred, showing what appears to be a parking garage or a similar indoor setting.

autoen gehigarria 2011



Aseguruak: badaezpada, derrigorrezko neurri

Autoari eta gidariari dagokion aseguru egokiena aurkitu behar da

Auto berria erosterakoan edo karneta atera berri dugunean, ondo pentsatu beharreko kontua da aseguruena. Konpainia eta aukera ugari daude merkatuan, baina badaude joera batzuk aukera hori egiterako orduan lagundu gaitzaketenak.

Gidaria

Gidariaren adina eta historia hartzen dute kontuan aseguru etxeetan. Karneta atera berritan, beti izango da aseguru garestiagoa, eta 18 urte edukiz gero, orduantxe dira prezioak garestienak. Horregatik, ohikoa da hasieran gurasoen izenean egitea aseguru horiek, eta gidari gaztea

bigarren gidari moduan sartzea polizaren baitan.

Duela gutxitik SINCO izeneko fitxategia sortu dute, eta bertan gidariak izandako istripuen historia ikusten dute aseguru konpainiek. Erantzukizun zibilari dagozkion datuak daude, beste pertsona bati kalteak egin zaizkion istripuak ageri dira SINCO-n. Historial hori aseguruaren prezioa kalkulatzeko erabiltzen dute geroago eta konpainia gehiagok.

Lehen, sexuen arabera desberdintasunak egiten ziren. Orain gazteenen artean egiten dira bereizkeriak, egitekotan; mutilek neskek baino garestiago ordaindu behar izaten dituzte aseguruak,

SINCO datu basea erabiltzen dute aseguruak gidariaren historia ezagutzeko

Autoa erosi eta urte batzuetara, arrisku orotarako polizatik erantzukizun zibilera

estatistikek diotenez, eurak baitira kolpe gehien izaten dituztenak.

Autoa

Auto berria erosterakoan ohikoena arrisku orotarako poliza kontratatzea da. Geroago, hiru-lau urte pasatuta, erantzukizun zibileko aseguru pasatzeko joera dago. Kristal apurketak eta lapurretak lako osagarriak kontratatzea komeni izaten da; horiek dira gertaera ohikoenak.

Poliza frankiziagaz edo barik egiteko aukera edukiko dugu; diru kopuru bat finkatu eta gure kalteak ordaintzeko kopuru hori gure kontu egongo da. Hortik gora aseguruak ordainduko digu.



A&L
AZPIRI LEJARDI
 Correduría de Seguros S.L.
 Aut. D.G.S.: J-1624
 azpirilejardi@azpirilejardi.com - www.azpirilejardi.com
 Tel / Fax: 94 682 49 37 / 94 682 46 19 Tel / Fax: 94 621 58 59 / 94 621 59 37
 Geltoki, 11 behe: 48240 BERRIZ Mabinestarta, 22: 48200 DURANGO

Teknologia eta irudimena

Tuning munduan jarduera eta estilo berriak agertzen hasi dira


Tuninga autozale askok duen afizioa da, ibilgailua teknikoki zein estetikoki eraldatzea helburu duena. Badira urte batzuk tuning deritzon fenomenoja jaiola, eta, dagoeneko, edozer ikusi daiteke kaleetan. Teknologia eta irudimena izanda, kotxe bereziak lortu daitezke.



musika ekipoa da. Asko eta asko dira atzeko maletategian bozgorailu oso handiak jartzen dituztenak.

Estetika ausarta

Kanpotik autoari eman ohi zaion estetika ez da batere kontserbadorea. Forma eta koloreak landuz, diseinu propioa bilatzea da kontua. Normalena, norbere kotxea



Alde teknikoa

Kotxeari motor hobea ipintzea ohiko jarduera da. Abiadura handiagoa hartuko du modu horretara gure ibilgailuak, potentzia handitzeko pieza eta gehigarriak txertatuz. Azelerazioa hobetzeko ere badaude formulak merkatuan. Indargetzaile eta gurpil egoiak ipiniz gero, gainera, kotxearen segurtasunean ere irabaziko dugu.



apur bat deportiboago bihurtzea da, aurrealdeari lasterketetako ibilgailuen itxura emanaz. Koloreen kasuan, bizien aldeko apustua egin ohi dute ausartenek.

Estilo bitxiak

Sektorea zabaltzen dabil. Estilo berriak jaiola dira tuning munduan, "Autoarte" delakoa kasu. Diseinuagaz, kotxea ia eskulturara bilakatzea gura izaten du egileak. Esku onaz gainera,

sormen gaitasun handia beharko da, baina, emaitza ona lortzeko.

Normalena, norbere kotxea apur bat deportiboago bihurtzea da, aurrealdea aldatuz

Horretaz gainera, tuningean modan dagoen kontua

Errepliken munduan murgilduta



Nork ez du amets egin marka garestienetako kotxeekin? Eta pelikuletako kotxeren bategaz? Tuning kulturaren zabaltzen dabiren ohitura da erreplikak diseinatzea, aurreko galderen harira.

Lehenengo eta behin, argi izan behar dugu lortuko dugun ibilgailua ez dela jatorrizkoa izango, baina hurreratu gaitzke. Oinarri moduan erabiliko dugun autoaren gurpilen eta ardatzen arteko distantzia kontuan hartu behar dugu hasieran. Txaparen diseinua eta pintaketa izango da hurrengo pausua, eta gero beste elementu batzuk gehitu daitezke. Adibidez, soinua aldatzeko, ihes-hodia aldatzea izan daiteke aukera bat.

BILBAO-EPSV

Zure BGAERen %5 OPARITZEN DIZUGU*

Matuzaren 15etik uztailaren 31ra.

*Guztira %5

BILBAO ASEGUROAK

AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

TEL.: 946 812 123 FAXA: 946 203 818

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orrizketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia 126 Posta Kutxa Durango

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

GURE AUKERAKO
IBILGAILU GUZTIEK
ERABATEKO BERMEA DUTE.

ERANTZUTEN DUGU.

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Gaursako Aukerako
Itzulgailuen arduraduna.



**RENAULT MÉGANE
DYNAMIQUE**

1.5 dCi 105zp. 2009 urtea.

12.900 €

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

PSP Transfereztzako gestuak berriz. Izakien emaitza arte bako duen eskaintza.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO. www.gaursembatitak.com

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO.

Orekaren garrantzia

Beharren araberako aukera da egokiena

Neguan, DGTk, elurretarako gailu bereziak edukitzea gomendatzen du; ohiko katez gainera, ehunezko zorroak eta neguko gorpilak daude aukeran. Adituen arabera, norberaren beharrei erantzutea da garrantzitsuena. Hori dela eta, aholku bila ohiko tokietara joateko gomendatzen dute mekanikariek.



eman behar zaio. Horrek eragina du, gorpilak aldatzerakoan ere; esan bezala, antzeko gorpilak ezarri behar dira beti.

Autoko bi gorpil aldatzerakoan, osoen daudenak atzealdean jartzea gomendatzen dute, bi ardatzen arteko oreka errazago mantentzeko. Bolantearekin autoaren aurrealdeko ardatza kontrolatzen da, gorpilak higituago egon arren; atzealdeko gorpil berriekin orekatuta dago autoa.

Autoko bi gorpil aldatzeko beharra dagoenean, osoen daudenak atzealdean ezartzeko aholkua ematen dute

Autoko lau gorpilak mota berekoak edo antzekoak izan behar dute. Orekak garrantzia du segurtasunean

Autoari etekinik handiena ateratzeko, gorpilak ere euren garrantzia dute; itsaspina eta erabilera ere hobetuko dira, bide batez. Lehenik eta behin, autoko lau gorpilak mota berekoak edo antzekoak izatea gomendatzen dute adituek. Hau da, orekari garrantzia

Gorpil berriei errodajea egitea aholkatzen da; lehenengo 200 edo 300 kilometroak neurrizko abiaduran egitea gomendatzen da. Horrela, epe luzean errendimendu hobea izango ei dute gorpilak. Gidatzeko modua gorpil berriei egokitu behar zaio.



Egin kasu TWI adierazleei



Gorpilak modu egokian izateak seguruago gidatzea ahalbidetzen dute. Hori dela-eta, noizean behin gainbegirada bat ematea gomendatzen dute. Gorpilak duten presioa egiaztatzeaz gainera, errodamendu-bandetako higadura begiratzea ere aholkatzen dute. Horretarako, TWI adierazleei adi egon beharra dago; adierazle horiek gorpilaren hegaletan daude, eta higaduraren lekukoak dira. Gorpilaren marrazkia osorik agertzea komeni da. Legalki, marrazkiaren tamaina minimoa 1,6 milimetrotakoa izan behar da.





**neumaticos
ETXEBARRIA**

Firestone

BRIDGESTONE

MICHELIN

BF Goodrich

Urbitearte, 6 Matiena
(Hiper Eroski aurrean)

Tel.: 94 623 25 20

pneumatiko marka guztiak!

Inguruari erreparatuz



% 40 aurreztea esan gura du 120km/h-ko abiaduran beharrean 100km/h-ko abiaduran gidatzeak

Pneumatikoen presioa zaindu behar da, eta luzaroan geldirik egotekoak bagara motorra itzali

Hein handi batean gure eskuetan dago teknologia era egokian erabili eta erregai gutxiago gastatzea. Jakina dugu dena ez dela autoaren kontua eta darabagun bizi erritmoak askotan azkarrago gidatzeraren, ingurugiroan ere erreparatu beharko genuke. Are gehiago, askotan gidatze eraginkorra erabilia aurrerapauso handiak emango genituzke segurtasunean ere.

Motorra martxan jartzean azeleragailua zapaltzea saihestu behar da, eta, dieselen kasuan, komendi da, behin martxan jarrita, autoa ibiltzen ez jartzea segundo pare bat arte, olioak motorra

labaintzeko zikloa hasi dezan. Kontutan hartzekoa da baita erabeti ere, azeleragailua zapaldu barik-, martxa engranatuan eta 20 km/h baino abiadura bizkorragoan, erregaiaren kontsumoa ezdeusa dela. Beraz, ona da, azeleragailua zapaldu ordez, motorra balantza lez erabiltzea martxa engranatuagaz. Kontua eduki behar dugu, baina, ito-puntuagaz.

Martxa luzeak lehenetsiz
Biraketa-abidura minimoa erabili behar dugu: gasolinadun motorretan 2.000-2.500 artean komendi da martxa aldatzea; gasoliodunetan, berriz, 1.500-2.000 arteko biraketa abiaduran.

Ingurumen ikuspegitik, oso garrantzitsua da martxa luzeak era-

biltzea ere, ahalik eta gutxien azeleratzea eta balaztada handiak ekiditzea. Era berean, 120km/h-ko abiaduran edo 100 km/h-ko abiaduran ibiltzeak %40 aurreztea esan gura du. Izan ere, kontsumoa abiaduragaz batera handitzen da eta. Hala ere, 80km/h-ko abiaduran joateak laugarren martxan, bosgarrenean beharrean, ez dauka efektu onuragaririk.

Segurtasun-tartea zainduz
Motorra itzaliko dugu luzaro geldirik egotekoak bagara, eta segurtasun-tartea zainduz gidatuko dugu. Premiazkoa ez bada ez dugu airegiroturik erabiliko, eta pneumatikoen presioa kontrolatuko dugu.



• TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen dutelarik.

• CAP ikastaroak profesionalentzat

• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO

Norbere beharren arabera

Furgoneta hutsik erosi, egokitu barik, eta gero atontzeko aukera

Batez ere iaz, eskari beherakada nabaritu duen arren, orain bost urtetik hona furgoneta barrutik preparatzeko helburuagaz Durangaldeko hainbat lagunek jo dute Mallabian Furgolan sortu zuen Igor Astarloarengana.

Oheekin, armairuekin eta abarregaz osatutako furgoneta erostea garesti begitanduta, barrutik preparatu bako furgoneta erosi eta ondoren egokitzen du askok: euren eskuz egiten dute batzuek, eta Furgolan lakoetara jotzen du beste zenbaitek. Diru asko aurrezteko modua delako hautatzen du gidari eta bidaiari askok aukera hau.


Besteak beste, bertan lo egin, bazkaldu edo atsedean hartzeko prestatzen ditu Igorrek Furgonetak, azaldu digunez, gauza bi bilatuz batez ere: praktikotasuna eta erabiltzeko erraztasuna. Ipini eta kentzeko armairuak, oheak eta mahaiak sortzen ditu, eguneroko bizitzarako, bidaiarako zein kargarako erabilgarri eduki ahal izateko furgoneta.



Espazioa zelan baliatu ondo

www.furgolan.com webgunean erakusten du Astarloak furgoneterako zelako lanak egiten dituen, eta bertan dauka kontakturako bidea ere. "Bezero bakoitza furgoneta bat da", azpimarratu du Astarloak. Erabiltzailearen beharrian zehaztutara moldatzen ditu proiektuak: furgonetan seme-alabek ere lo egiteko lekua egiteko, esaterako, litera erako ohea ipini die inoiz bezero batzuei.

Furgonetako leihoetarako kortinak eta aluminiozko kortina termikoak ere neurrira egiten dituzte Furgolan-en.



Praktikotasuna eta erabiltzeko erraztasuna helburu hartuta atontzen dituzte furgonetak Mallabiko Furgolan-en



Repara Tu Vehículo

Otra mecánica es posible

Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Zure eskura jarriko dugun tailer batean.


Aste osoan zehar
(asteheneretik igandera 09:30etik 21:30era)

<p>249</p> <p>Diru eta litro aldiak</p>	<p>299</p> <p>Gaitu egunero</p>
<p>139</p> <p>Fluorentzia laburrak (besterekin batera)</p>	<p>449</p> <p>Etanberrituak eta erregenerazioak (besterekin batera)</p>

Bisita gaitzazu N-634 errepidea Durango-Bilbo 62km • UEI - 3 poligonoa 6. doa. behea • 48915 karrera • Tel./Faxa: 94 681 79 14



50 urte lata ematen



Renault 4 autoak, 'Cuatrolatas' moduan ezagutzen dugunak, 50 urte egin berri ditu. 1993an utzi zioten ekoizteari, baina oraindik errepidean ikusten dira noizean behin. Durangaldean Josu Hormaetxea iurretarrak (Berrizen bizi da) 20 auto klasikotik gora ditu, eta horietako hiru Renault 4ak dira; garaje batean gordeta duen more koloreko bati estimu berezia dio, "nire lehenengo autoa izan zelako, anaiak eman zidana".

Bere sasoiari, estetika apur bat alboratu eta funtzionaltasuna ezaugarri nagusi izango zuen autoa merkaturatu nahi izan zuen Renaultek; irudietan duzuen izan zen emaitza: "Orduko errepideak ez ziren oraingoak bezain onak. Sasoiako beste autoekin alderatuta

esekidura bigunagoa zuen Renault 4ak, eta horregatik ederto egokitzen zen errepideen edo zelako baldintzetara. Horrez, gainera trakzioa aurrean zuen lehenengotakoa izan zen".

Esekidura malguaren ondorioz, bihurguneetan gura baino gehiago etzaten da autoa, baina hala ere "edonork gidatu dezake eta bidean ilara luzerik ez sortzeko adina abiadura hartzen du".

Ardoaren antzera, auto klasi-koen balioak gora egiten du urteak joan ahala. Errepidean gero eta 'cuatrolatas' gutxiago ikus- teak esan gura du gertatzen diren balioak gora egin duela azken urteetan. Gainera, joera horrek beste urte batzuetan jarraituko duela uste

du Hormaetxeak: "Hau da autoa birbaloratzeko une aproposa. Batetik, gero eta gutxiago ikusten dira, eta, bestetik, nire belaunaldikoek (34 urte ditu) gogoan dugu Renault 4a aro opa-roago baten parte zen sasoiari. Hurrengo belaunaldiek bizi gabe izango dute guk bizitakoa".

Renault 4a historian gehien saldu den hirugarren autoa da Volkswagen escarabajoaren eta Ford T-aren atzetik. Guztira, mota horretako 8.135.424 auto ekoiztu ziren 1993ra arte. Horietatik 800.000 inguru Espainiako estatuari ekoiztu ziren.

Kuriositate moduan, aipatzekoa da autozale batzuek Renault 4agaz Paris-Dakar rallya korritu zutela behin; lasterketa amaitu ez ezik, hirugarren amaitzea lortu zuten, podiumera igoz.

Esekidura biguna zuenez, deneriko bideetara egokitzen zen Renault 4a


Orain balioa hartzen dabil eta horrela jarraituko du datozen urteetan.

Mundu osoan zehar zortzi miloi auto ekoiztu zituzten 1993ra bitartean



DURANGO

EAJk zinegotzi bat irabazi du eta Bildu bigarren indarra izango da



EAJ alderdiak boto kopuruan gora egin du eta Bildu bigarren indarra izango da. EAJk zinegotzi bat gehitu arren, ez du gehiengo osorik; hala ere, alkatetzari eusteko aukerak ditu. PSE-EEgaz akordioa itxita, gehiengo osoa lukete.

Akordio hori barik ere gobernatu dezake. Bildu eta Aralar batuta, EAJk adina zinegotzi dituzte: zortzi. Hala ere, berdinketaren kasuan, inbestidura-ekitaldiko bigarren bozketak boto gehien jaso duen alderdiari ahalbidetzen dio alkatetza.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	EAJ	Bildu	PSE-EE	PP	Aralar	EB	Zuriak	Balio barik
21.475	%35,9	4.649	3.650	1.801	1.501	1.373	465	269	146

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAJ	EAE	PSE-EE	PP	Aralar	EB	EA	Zuriak	Balio barik
22.122	%39,8	4.099	2.531	2.131	1.605	1.559	695	382	180	122

ELORRIO

Bilduk boto gehien atera arren, EAJk lortu dezake alkatetza



Bilduk eta EAJk seina zinegotzi batu dituztenez, PPK lortutako zinegotzia erabakigarria izan daiteke. Izan ere, Antonio Basasoitik Bilduri ahalik alkatetza gehien kentzeko proposamena luzatu die EAJri eta PSE-EEri.

Ana Otadui EAJko alkategaiak *Anbotori* adierazi dionez, "guk gure hautagaitza aurkeztuko dugu, eta gure zinegotziek EAJko hautagaiaren alde bozkatuko dute. Ez dakigu besteek zer egingo duten. Guk ez dugu ezelako pakturik PPGaz, eta batzar formalik ere ez dugu izan".

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PP	PSE-EE	Aralar	SO2-EB	Zuriak	Balio barik
5.831	%28,7	1.741	1.505	276	223	199	161	44	40

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAE	EAJ	EHA	PSE-EE	PP	EA	Zuriak	Balio barik
6.030	%30,8	1.672	1.245	477	373	249	93	31	29

ABADIÑO

Independienteek gogor eutsi diote Bilduren gorakadari



Abadiñoko Independienteek zein Bilduk emaitzak oso onak lortu dituzte Abadiñon. Lehenengok orain lau urte baino ia 500 boto gehiago lortu dituzte. EAJk, aldiz, beheranzko joeragaz darrai. Orain lau urte alkatetza galdu zuten; joan zen domekan, zinegotzien erdiak galdu zituzten: lautik bira jaitsi dira.

Bilduk eta EAJk elkar hartuz gero, gehiengoa dute. Orain lau urte ere bazegoen aukera hori, baina ez zen eman. Jose Luis Navarro bigarren legegintzaldiaren atarian dago.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	AI	Bildu	EAJ	EB	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
5.838	%28	1.649	1.516	652	106	103	91	28	19

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	AI	EAE	EAJ	EB-Aralar	PSE-EE	PP	EA	Zuriak	Balio barik
5.943	%34	1.173	1.122	967	197	181	172	58	24	25

BERRIZ

EAJk 71 botoko aldeagaz bakarrik irabazi dio Bilduri



Berrizen EAJ eta Bildu dira ondorio-rik baikorrenak aterako dituzten alderdiak. Jeltzaleek boto kopuruan gora egiteaz gainera, alderdirik bozkatuena izatea lortu dute, askoren pronostikoak hautsiz.

Bildu asko hurreratu zaio EAJri boto kopuruan, eta bost zinegotzi ditu; besteak beste, EAK 2004an lortutako 171 botoak Bilduk jaso dituela dirudi. PSE-EEren zinegotziak desorekatu dezake balantza. Akordiorik ezean, Orland Isoird jeltzalea izango da alkate.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	EAJ	Bildu	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
3.763	%34	1.012	941	292	142	52	48

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAJ	EAE	PSE-EE	EA	PP	EB-Aralar	Zuriak	Balio barik
3.938	%37	875	718	331	171	161	139	51	30

IURRETA

EAJk ozta-ozta lortu du gehiengoa, Bilduren aurretik



Berrizen 71 botoren aldea egon bada EAJren eta Bilduren artean, Iurretan tartea oraindino txikiagoa izan da: 52 botogatik lortu du EAJk alderdirik bozkatuena izatea.

Zinegotzi kopuruan berdinduta daude, beste herri batzuetan legez. PPK jakinarazi duenez, Bildugaz ez du ezer ere eztabaidatzeko, beraz, PSE-EEren bidea bakarrik geratzen zaio Bilduri alkatetzara heltzeko. Bestela, Iñaki Totorikaguena izango da, bigarren biderrez, Iurretako alkate datozen lau urteetarako.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	EAJ	Bildu	PSE-EE	PP	EB	Zuriak	Balio barik
3.069	%35,9	691	639	337	186	66	10	5

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAJ	EAE	PSE-EE	PP	EB-Aralar	Zuriak	Balio barik
3.255	%39,6	595	395	422	232	182	36	395+24

ZALDIBAR

Bildu koalizioko Arantza Baigorri izango da alkate



Zaldibarren kasuan ez dago zalan-tzarik. EAJren hegemoniagaz erabat apurto du Bilduk, eta gehiengo osoren jabe egin da; beraz, koalizioaren alkategai den Arantza Baigorri izendatuko dute alkate ekainaren 11ko inbestidura-ekitaldian.

Bilduren emaitza ezin hobek aztertzerako orduan, kontuan hartu behar da boto asko EAREN adarretik etorri direla, hiru zinegotzi baitzitu. PPK ere zinegotzi bat lortu du jasotako 124 botoekin. PSE-EE zinegotzi bik ordezkatzeko dute.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
2.371	%35,2	780	324	251	124	30	31

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAJ	EAE	PSE-EE	EA	ZI	EB-Aralar	Zuriak	Balio barik
2.697	%37,8	406	311	296	261	118	51	10	311+24

ATXONDO

Bilduk bikoiztu egiten du EAJ zinegotzi kopuruan



Zaldibarren legez, Atxondon ere garaipen argia lortu du Bilduk. Koalizioak bibidertu egiten du udalbatzarrean EAJren zinegotzi kopurua: sei hiruren kontra. Boto kopuruan ere alde nabaria da. Aurreko legegintzaldian Ezker Abertzaleak izan zuen gehiengo osoa eta datozen lau urteetan Bilduk izango du. EAJ aurreko legegintzaldian baino zinegotzi bat gutxiagoz geratu da.

Beraz, Bilduko Rosa Maria Elizburuk hartuko du David Cobosek utzitako alkate kargua.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
1.179	%28,9	473	275	27	20	26	19

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAE	EAJ	PSE-EE	EB-Aralar	PP	Zuriak	Balio barik
1.220	%28,1	429	331	51	23	20	14	9

MALLABIA

Bilduk gehiengoa lortu du eta EAJk ere gora egin du



Bilduk 62 botoko alde atera dio EAJri; alde nahiko zientotzi bat gehiago izan eta gehiengo osoz agindu ahal izateko. EAJk 30 boto-eran egin du gora, baina ez da nahikoa izan alkatetzari heltzeko. Zinegotzien banaketa honela geratzen da: bost Bildurentzat eta lau EAJrentzat. Bilduko Maria Milagros Mondragon izango da alkate.

PSE-EEK nabarmen egin du behera, kantitatez baino gehiago proportzioz. 66 boto zituen 2007an eta 31 ditu orain.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
981	%25,1	363	301	31	12	19	8

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAE	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
1.017	%29,9	339	271	66	23	2	11

GARAI

Orain lau urte hasitako bidea egongortu du Herriko Taldeak



1978tik 2007ra arteko udal hauteskunde guztiak EAJ irabazi zituen. Orain lau urte, ordea, Herriko Taldeak lortu zuen gehiengoa, eta domekan iraultza hori ez zela behin-behinekoa izan erakutsi zuten hauteskundeetako emaitzek.

Herriko Taldeak 22 boto gehiago lortu ditu eta EAJk 16 gutxiago. Ondorioz, Herriko Taldeak zinegotzi bat kendu dio EAJri: bost biren kontra. Gontzal Sarrigoitiak gehiengo osoaz gobernatuko du datozen lau urteetan.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	HT	EAJ	PSE-EE	Zuriak	Balio barik
265	%14,1	148	76	1	0	0

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	HT	EAJ	PP	Zuriak	Balio barik
263	%12,1	126	92	2	11	0

OTXANDIO

Santi Uribe izango da alkate Bildu erraz nagusitu ondoren



Hauteskundeek aurreikuspenak berretsi dituzte, eta orain lau urte Batiak garaipen garbia lortu bazuen (sei zinegotzi EAJko hiruren kontra), oraingoan are alde handiagoz nagusitu da Bildu (zazpi biren kontra).

Boto kopuruetan alde handia dago: Bilduk bibidertu baino gehiago egiten du EAJ. Jeltzaleek boto 46 galdu dituzte 2007agaz alderatuta. Beraz, Bilduk gehiengo osoz kudeatuko du udala eta ibestidura ekitaldian Santi Uribe izendatuko dute alkate.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PP	PSE-EE	Zuriak	Balio barik
1.006	%20,3	522	219	15	9	22	14

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	Batia	EAJ	PP	EB	PSE-EE	Zuriak	Balio barik
1.016	%20,5	500	265	11	9	9	9	4

MAÑARIA

16 urteren ondoren, Arteagak agur esan dio alkatetzari



Zaldibarren gertatu den moduan, Mañarian ere Bildu erauntsi baten moduan sartu da udalean, eta gehiengo osoa lortu du; bost zinegotzi EAJko lauren kontra. Bi alderdien artean 17 botoko alde bakarrik egon den arren, EAJ udalbatzarreko alderdi bakarra izateko oposizioan egotera igaro da.

Ondorioz, Mañariak alkate berria izango du aspaldiko partez, azken lau legegintzaldietan Jabier Arteaga jeltzaleak agindu baitu. Endika Jayo izango da alkate berria.

2011ko emaitzak:


Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
398	%14,6	173	156	4	2	4	1

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAJ	EAE	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
441	%29,2	177	103	9	5	10	103+8

IZURTZA

Bilduk ia bibidertu egin du EAJk lortutako boto kopurua



EAJk ezin izan du 2007an galdutako alkatetzeko berreskuratu eta garaipen malgua lortu du Bilduk Izurtzan. 2007an EAE-ANVK baino 23 boto gehiago eskuratu ditu; EAJ, aldiz, 18 bototan jaitsi da. Ondorioz, datozen lau urteetan gehiengo osoaz aginduko du Bilduk udalean; bost biren kontra. Ekainaren 11n, Bildum koalizioa Luis Jose Ballarin izendatuko dute alkate.

Gainerako alderdiek oso boto gutxi lortu dituzte. PPK eta PSE-EEK boto bana bakarrik jaso dute.

2011ko emaitzak:

Errolda	Absten.	Bildu	EAJ	PSE-EE	PP	Zuriak	Balio barik
216	%11,6	123	62	1	1	3	1

2007ko emaitzak:

Errolda	Absten.	EAE	EAJ	PP	Zuriak	Balio barik
228	%13	100	80	2	1	5

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA



Zainduz


FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51




HIRU FISIOTERAPIA

asteheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 10- 1. esk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;

Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak  @

Zapaburu Gazte Konpartsaren deialdia

Iepa gazteok!

Hemen gaude urtebete pasa ondoren, gure oraina eta geroa eraikitzen jarraitzeko gogoz beterik. Zapaburu Gazte Konpartsa sortu zenetik, ez dira gutxi aurrera eraman ditugun gure ilusio eta ametsak: jaietako karpa eta egitarau propioa, mendi irteerak, tailerrak, ikastaroak, mozorro eta literatura lehiaketak, bertso saioak... Gogoratuko ditugu gazteon beharrei erantzuten saiatzeko barikueta-ko kedadak, hausnarketak, lan egunak, txokolatadak, elkartrukaturako hainbeste ideia eta iritzi, elkarrengandik ikasitako hainbeste kontu... Eta ahaztezi-na izan zen martxoan egindako Zapaburu Eguna, aurretiko prestakizunak, eguneko bizipenak... eta kaleratutako aldizkaria, noski. Hau dena hasierako lemarren harira: "Gazteok sortua gazteontzat".

Baina aurrera begira ere baditugu beste hainbeste erronka. Udak momentu ezin hobea eskaintzen digu gazteoi, izan eta izango garen denok batu eta gure tamainako Durango eraikitzeko, gazteon aisialdirako beste erreferentzia desberdin, alternatibo bat sortzeko. Eta uda ere ametsak egi bihurtzeko garaia ere, nahi dugunerako aske garen denbora urria, eta horretarako deialdia egin nahi diegu Durangoko gazte guzti-guztiei. Garaia da gure herriko jaietara begiratzeko, gure ideia guztiak martxan jarri ahal izateko. Jakin dezagun munduko jairik onenak montatzeko borondatez lan egitera prest dagoen jendearen parte-hartzea behar dela. Eta horretarako da helarazi nahi dugun deialdia, datoren barikuan, ekainaren 3an, Pinondora gerturatu gaitezen Durangoko gazte guztiak.

Etortzera animatzen zaitugu zu ere, hau irakurtzen ari zaren gazte durangar hori, ez baikenuke hau idazteko lana hartuko zu eta zure lagunak gerturaztea benetan nahiko ez bagenu.

Gogoratu: Ekainaren 3an, arratsaldeko 18:00etan, Pinondon. Eguraldi ona eginez gero kanpoan batuko gara, eta euria bada Pinondo Etxearen barruan, eguraldi txarra ez delako nahikoa gure ilusioak zapuzteko.

Zapaburu Gazte Konpartsa

Elkarlanerako unea

Maiatzaren 22ak Durangoko udalbatza utzi duen egoera aldekoa dela pentsa daiteke, euskaraz bizi gura dugunoi aukera emateko. Horrela ulertu gura dugu, horrela behar luke.

Azken egunotan hainbat mitin, eskuorri, iragarki, kartel... ikusi, entzun eta jaso dugu. Alderdi batzuek euskarari lehentasun osoa eman diote; beste batzuek, ordea, ezinean ibili direla esango genuke. Herrian nahi duenak euskaraz bizi behar badu, neurri handi batean, udal ordezkariak izango dute hitza. Beraiek izango dira, gure udalerriko (udaletxeko, kiroldegiko, liburutegiko...) langile diren lan baldintzak eta euskara gaitasuna ziurtatuko dituztenak; beraiek euskal kultura, euskal komunikabideak zein enpresa edo merkataritza pribatuak euskalduntzea diruz laguntzeko eta sustatzeko gaitasuna dutenak. Esan beha-

rik ez, beraiek izan beharko luketeela ordezkatzeko dituztenen eredu.

Botoa emanda dago, ordezkariak aukeratuta daude, baina oraindik badaukagu zer esan. Herri mugimenduak jarrera eta ekimen eraikitzailea izan du beti. Bidean, ordea, oztopo bat baino gehiago izan ditu udal ordezkariaren ekimenez, gehienetan eskakizunei entzungor egin baitiete. Gehiegi begiratu diote egileari, zer egiten duen kontuan hartu beharrean. Baina temati agertu gara sarri eta, geureari ekinez, zenbait proiektu ipini ditugu abian euskaraz bizitzen lagun-du digutenak.

Egia da Durangoko Udalak, hainbat tresna eta baliabide jarrita dauzkala euskararen normalizaziorako: Euskara Zerbitzua, Euskara Plana (herriari begira zein administrazio barrura begira), Euskararen Ordenantzak... Baina ez da nahikoa: oraindik gure herrian euskaraz bizi gura dugunok arazo eta oztopo asko topatzen ditugu.

Uste dugu estrategiak eta ekimen bateratuagoak jarri behar ditugula abian denon artean, administrazioa kudeatzen dutenen eta herriko eragileen artean adostuak; garrantzitsuena gogoak eta indarrak jartzea dela.

Guk, euskaraz pentsatu, sentitu, maitatu eta aritzen garenok, euskaraz egin nahi dugu alor guztietan. Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi ditugu, polikiroldegiko ikastaroak euskaraz jaso nahi ditugu, herriko merkatal guneetan euskaraz aritu nahi dugu, kultur eskaintza euskalduna eduki nahi dugu, politikariak euskaraz entzun nahi ditugu... Ekin diezaiogun lanari euskara lehen-tasuneko hizkuntza izan dadin; udaletik herrira eta herritik udalera.

Berbaro euskara elkarte

Durangoko Aralarrek, eskerrak emanez

Lehenbizi zorionak eman nahi dizkiegu EAJri eta Bilduri: Lehenengoei, Durangon hauteskundeak irabazi izanagatik; bigarreni, Durangon eta orobat Hego Euskal Herrian izan dituzten emaitza ikusgarriengatik. Abertzale eta ezkerrekoak garen aldetik, pozgarria iruditzen zaigu.

Orokorrean, Aralarrek emaitza apalak lortu ditu. Hala ere, ez gaude triste. Gizartean eragiteko eta gizartea bera eraldatzeko sortu ginen. Helburu horrekin, herri honi ekarpen garrantzitsua egiten ari gatzaiakio, eta horretan jarraituko dugu.

Durangon, ordea, emaitzak onak izan dira. Gainera, hauteskunde hauetan inoiz baino babestuago sentitu gara: Estimatzekoa izan da kanpainan jaso dugun laguntza. Oso pozgarria izan da 1.373 durangarrek gudan konfidantza jartzea, eta benetan hunkitu gaituena, hauteskunde biharamunean zuongandik jaso dugun arreta eta eskaini dizkiguzuen animoak. Horregatik bakarrik, merezi du. Eskerrik asko.

Durangoko Aralar

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN

zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.


DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoaanboto
durangaldeko astekariaAnboto komunikabideak Elkarte
2011ko maiatzaren 27a - 10. urtea - 417 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KIROLAK >



Aurten ere goi mailako txirrindulariak batuko ditu lurretan hasiko den Emakumeen Birak. Jon Iglesias

Emakumeen Bira, mailarik onenari eutsiz, ekainaren 9tik 12ra

Egoera ekonomikoari aurre egin eta mailari eutsiko dio lurretako Emakumeen Bira Ziklismo Elkarteak antolatzen duen lasterketak; lurretan hasi eta Urduñan helmugaratuko da.

Iuskizuna agindu dute XXIV. lurretako Emakumeen Birako antolatzaileek. Txirrindulari onenak, talde eta selekzio sendoak, etapa erakargarriak eta paisaia ederrak: horixe da aurtengo edizioaren errezeta. Eguaztenean egin zuten ekainaren 9tik 12ra jokatu den lasterketaren aurkezpena, lurretako udaletxean, antolatzaile eta babesleek.

Bigarren etapan Milloi bi bider igo beharko dute, Lekeitio helmugaratu aurretik

“Birak mailari eutsiko dio”, adierazi zuen Agus Ruiz antolatzaileak. Baina antolaketa ez dela erraza izan gaineratu zuen, egoera ekonomikoari helduz. Iñaki Totorikaguena lurretako alkateak eskerrak eman zizkien antolatzaileei, eta “proba hau zein emakumeen kirola babes-teko konpromisoa” berretsi

zuen. Gainera, “anfitrioiak izateak harrotasuna” ematen diela azaldu zuen.

Lehia bizia

Azken hiru edizioetako garaileak lurretako irteeran izango dira: Marianne Vos, Judith Arndt eta Claudia Hausler. Iaz etapak irabazi zituzten Annemiek Van Vleuten eta Nicole Cooke ere garaipenaren bila etorriko dira.

18 talde ariko dira, nor baino nor: Diadora-Pasta Zara, Nederland Bloeit, Lotto edota Fassa Bortolo aipatu daitezke. Hiru etxekoak: Jon Elorriagaren Bizkaia-Panda, Eneritz Iturriagaren Lointek eta Debarrena-Kirolgi. Azken honetako liderra Leire Olaberria gipuzkoarra da.

Etapak

Lehenengo etapak lurretan izango ditu hasiera eta amaiera. Arratsaldeko 16:30ean abiatuta, 75,3 kilometro beteko dituzte Zornotzatik pasatu, Larrabetzu eta Morga igaro eta Aretxabalagane igoz, bueltan etorriko dira gero. Bigarrena barikuan izango

Ekainaren 11n Elorriotik Kanpazarrerako kronoigoera burutuko dute; 7,6 km-koa

Amaieran, Urduñako igoerak zein jaitsierak lasterketa erabakitzeko balioko dute

da, 15:30ean hasita, hau ere lurretan. Autzagane eta Astorkigane igota, amaiera gogorra izango dute zain, Milloi bi bider igo beharko dute-eta, Lekeitio muga zapaldu aurretik. 115,6 kilometro guztira, eta aldeak egiteko ibilbide egokia.

Zapatuan bi sektoretan banatuko dute etapa. Lehenengo Elorriotik Kanpazarrerako kronoigoera izango da, 09:30ean, 7,6 kilometrogaz. Bigarrena, 16:30ean, Deban irten eta amaituko da; 81 kilometrotan, Lasturko Txapasta mendatea bi bider igoko dute, eta Kalbario ere bai, behin, helmugatik 10 kilometrora, etapa hausteko aukera eskainiz.

Azken etapa, klasiko bihurtu den Urduña-Urduña izango da. Domeka goizeko 10:30ean ekingo diote 125,7 kilometroko ibilbideari. Hirugarren mailako Garate eta bigarren mailako Barrerilla mendateak azken igoerarako proba izango dira. Urduñako igoerak zein jaitsierak lasterketa erabakitzeko balioko dute. ■ Markel Onandia.

Elorrio igotzekotan; Berriz, mailari eutsi nahian

Elorrioko mutilak Ohorezko Mailara igoera lortzen saiatuko dira bihar; bi puntuko alde dauka laugarren sailkatua den Otxarkoagarekiko. Denboraldi-ko azkeneko partiduan Arratiaren kontra jokatu dute elorriarrek, bihar, 17:00etan; Otxarkoagak, oster, Ugaoren aurka jokatu du.

Bestalde, Berrizek Ohorezko mailari eusteko azken aukera du bihar, 17:30ean, Bermeon. Hain zuzen, Berrizek hiru puntuak lortu behar ditu, eta horrez gainera, Basurto-Ugeraga eta Retuerto-Balmaseda partiduetako emaitzei itxaron behar die. ■ A.M.

Euskadi-Kuba partidua bertan behera utzi zuten

Martitzenean jokatzekoa zen Kubako eta Euskal Selektzioen arteko saskibalo partidua, baina kubatarrek Londreseko aeroportuan arazoak izan dituzte bisekin; hori dela-eta, atzeratu egin zen Euskal Herri-rako bidaia. Durango jokatu ostean, Eskoriatzara joateakokak ziren kubatarrek; han ere ez zuten jokatu partidurik.

Aurre olimpikoa prestatzeko asmoagaz European bira egiteko asmoa dute kubatarrek; lehenengo bisak zirela-eta, ondoren Islandiako Grims-votn sumendia dela-eta, birarako prestatu zituzten hainbat partidua bertan behera geratu dira; tartean Euskal Herrikoak. ■ A.M.

Aitor Martinez Fly Group R.T-n arituko da

Aitor Martinez motor-gidaria Fly Group R.T taldean arituko da datorren denboraldian; Espainiako Motoziklismo Txapelketan lehiatzeko asmoagaz jaio da talde hori. Martinez abadiñarrak gainera, talde beste hiru kidek osatzen dute: Iker Torrontegi gernikarrak eta Oier eta Yaret Cascante nai donostiarrek, hain zuzen ere. Espainiako Txapelketan lehiatzeaz gainera, taldearen helburu nagusia bertako piloto gazteentzako “trapolina” izatea dela azaldu du ohar batean Martinezek. Gidariak lehiatzen ari dira dagoeneko. ■ A.M.

Biharko Izarrak txapelketako finalerdiak izan ziren atzo

Mendizabal-Aretxabaleta eta Arrese-Landaburu; Ezkurdia-Zubiri eta Azpiri-Untoria bikoteak lehiatu ziren. Emaizak, www.anboto.org-n



Txapelketako partidetan, lehiatzen gainera, giro ona egon dira.

Otsailean hasi eta gero, Biharko Izarrak txapelketa amaierara heltzen hasi da. Atzo gauean finalerdiak jokatu zituzten ligaxkan partidu gehien irabazi dituzten zortzi pilotariak. Kanporaketak eta gero, hauek izan dira finalerdietarako sailkatu diren pilotariak: Mendizabal, Aretxabaleta, Arrese, Landaburu, Ezkurdia, Zubiri, Azpiri eta Untoria. Carlos Garcia antolatzailearen berbetan, pilotariak "oso maila ona" eskaini dute, eta txapelketa osoan zehar legez, finalean ere ikuskitzuna ziurtaturik egongo da.

Garciaren aburuz, Untoria nafarra ligaxkako "atzelari onena" izan da, eta zeresan handia emango duen pilotaria izango da. Durangaldetik, ostera, bi lagun sailkatu dira finalerdietarako: Landaburu eta Azpiri elorriarrak, hain zuzen ere. Azken hori izan da txapelketako "sor-

Partiduko emaitzak
www.anboto.org
helbidean daude ikusgai

Lau t'erdiko txapelketako finalerdiak ere jokatu zituzten atzo

presa"; Perez faboritoaren aurretik sailkatu da gazte elorriarra. Garciak, Mendizabal antzuolarraren txapelketa azpimarratuz, pilotariak izandako ibilbidea nabarmendu gura izan du: "Finalera helduz gero, ez luke lehenengo izango".

Ikusle aldetik egon den erantzuna "nahiko ona" izan dela nabarmendu du Carlos Garciak; horri lotuta, ekainaren 3ko finala telebistaz eskainiko dutela azpimarratu du antolatzaileak. Biharko Izarrak txapelketatik, izenak dioen legez, gerora goi mailan lehiatzera heldu den hainbat pilotari irten da: Ibai Zabala, Berasaluze... Aurtengo edizioan aritu direnako "bik edo hiruk" etorkizunean "jauzia" emango dutela deritzo Garciak; tartean, Albaradok: "Lau edo bost tantogatik ez da sailkatu finalerdietara", dio mallabitarrak.

Biharko Izarrak txapelketaz gainera, aldi berean lau t'erdiko txapelketa ere jokatu dute asteotan Mallabian; atzo finalerdietako lehiak jokatu zituzten: Bendoiro-Legorburu izan zen lehenengoa; bigarrena, berriz, Sancho-Juanenea. ■ A.Maldonado

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea



ACBren benetako ordua

Adituarentxokoa

Denboraldiaren azkeneko momentu erabakiorre-netan gaude murgilduta. Beharbada, gutxik pentsatzen genuen ACB Ligako finalerdietan gure bi talde nagusiak, bai Bizkaia Bilbao Basket bai Caja Laboral Baskonia, biak ala biak, protagonista izango zirenik.

Gasteiztarren kasuan zaila egiten zaigu finalerdiak jokatzeko ez ikustea, eta beharbada beraien meritua gutxiti egiten dugu, baina Kanaria Handian egindako erakustaldia kontutan hartzekoa da. Gainera, arabarrek badakite Regal F.C. Barcelonaren aurka kantxa faktorea irabaztea zer den. Joan den urteko finala gogora ekartzea baino ez daukagu. Baina aurten, nire ustez, askoz ere zailago dauka Baskoniak.

Bilbotarrek, ostera, ez daukate inongo presiorik, eta, Valentzia atzean utzi eta gero, edozer egiteko gai dira. Madrilerak joateko momenturik onena da, gainera. Zergatik? Real Madril taldea guztiz banatuta dagoelako. Jokalariak eta entrenatzailea ez dira batere ondo konpontzen, Fuenlabradaren aurkako partiduan ikusi zen moduan. Madriletik garaipen batekin etortzea erabakiorra izan daiteke, beraz.

Ea zer gertatzen den bi finalerdietan. Baina imaginatzen duzue ACB Ligako euskal taldeen arteko finala? Zoragarria izango litzateke. Oraingoz posible da. Ea, gutxienez, bi taldeetako bat finalera sartzen dugun!

Elorrioko neskek Bigarren Mailako txapelketa irabazi dute



Juanra de la Cruz

Denboraldi bikaina burutu ondoren, Elorrioko neskek bigarren mailako txapelketa irabaztea lortu dute. Denboraldi osoan bi partidu galdu dituzte bakarrik, eta 9 puntuko aldea ateratu diote bigarren sailkatuari. Horrez gainera, talde golegileena izan da Elorriokoa; gol gutxien jaso dituen ere bai. Merzitako omenaldia jaso zuten, beraz. ■ A.M.



Elorrioren ere aukera onak



ZARATE ELEXPE

Bizkaia Kalea 19, Durango • Tel.: 94 801 00 73

Durango • www.zarateelexpe.com

GALLASTEGI

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



ELUSKO LABEL

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

eskerrikasko

guztiori!

Iurreta, Durango, Garai,
Izurtza, Mañaria, Otxandio,
Abadiño, Atxondo, Elorrio,
Berriz, Zaldibar, Mallabia

DURANGALDEAN
LEHEN INDARRA

bildudurangaldea **bildu**euskalherria



Arripausuetatik kalera aterako du errugbia DRTk

DRTren 25. urteurrena dela-eta, errugbiaren eguna ospatuko dute bihar Durangon. Goizetik hasita ekimen ugari egongo da egun osoan



Sakrifizioak eta konpromisoak ezaugarritu du mende laurden honetan DRT. Juanra de la Cruz

Ospakizun garaia da eskualdeko errugbi taldeentzat. DRTk eta Elorrioko errugbi taldeek 25 eta 30 urte bete dituzte aurten, hurrenez hurren. Biek ala biek, bereizten dituen ezaugarri bat dute; lehiatz gaine-

DRTk eta Elorriok 25 eta 30 urte bete dituzte, hurrenez hurren

ra, bestelako baloreak zabaltzen dituzte. Urteurren horiek ospatzeko bi jai egun prestatu dituzte datozen asteetan. Lehenengoa bihar, Durangon; DRTren 25. urteurrena ospatzeko, egun osoko jai ospatuko da. Goizeko 12:00etan

Gol bateko errentarekin doa Kulturala Kantabriara

Igoera faseko bigarren kanporaketara pasatu ala ez dago jokoan; 2-1 egin zuten joanekoan

Joaneko partiduan irabazi ondoren, Kulturalak aurrerapausua egin du; igoera play off-eko bigarren fasera sailkatzeko aldeko du haizea orain. Hain zuzen ere, domekan jokatu dute durangarrek itzuliko partidua, Rayo Cantabriaren kontra. Joaneko partiduan 2-1 gailendu zen talde zuriurdina. Galtzen hasi arren, bigarren zatian buel-

ta eman zion partiduari, Eriz eta Muniozgurenen golei esker. Horrenbestez, abantailagaz bidaiatuko du Kantabriara Durangoko taldeak. ■ A.M.

Eriz eta Muniozgurenen golei esker buelta eman zion partiduari Kulturalak

Pilota Gazte jaialdia ospatuko da bihar Durangon

Pilotaren munduagaz lotutako bi ekimen ospatuko dira bihar Durangoko Ezkurdi Pilotalekuan. Alde batetik, Pilotagazte kontzentrazioa egingo dute; pilota eskoletako kide diren ehunka gazte batuko dira bertan, eta denboraldiko argazki ofiziala aterako dute.

Ondoren, Bizkaiko Herri Arteko Txapelketako zesta punta finalak jokatu dira; Berriatuko eta Markinako senior, gazte eta kadete mailetakoko taldeek jokatu dituzte final horiek. Esku huskako txapel-

Atxondok bakarrik egin du aurrera esku huskako Herri Artekoan

pelketari dagokionez, Atxondoko taldeak bakarrik lortu du aurrera egitea. Final-laurdeneran Usansoloren aurka jokatu beharko dute atxondarrek. Zaratamo eta Galdakaoren aurkakoak galdueta gero, lurretak eta Mallabiak agur esan diote txapelketari. ■ A.M.

hasita, adin guztietako jendearentzako ekimenak antolatu ditu horretarako eratu den batzordeak. 12:00etan, puzgarriak egongo dira txikienez zako; ostean, bazkaria egongo da. Bazkalostean, Abadiñoako Banarte antzerki taldekoek monologoak eskainiko dituzte. 19:30ean hasita, Trikizio taldeak dantzaldia eskainiko du. Ekimenok Landako Gunean izango dira. Antolatzaileren batzordeko kide den Gotzon Gomezen berbetan, biharko jaialdia urteurrenaren "inflexio puntua" da. Hain zuzen ere, iazko abenduan hasi ziren urteurrena ospatzeko ekimenak antolatzen; nesken euskal eta kataluniar selekzioek elkarren aurka jokatu zuten Arripausuetan. Orditik, zine-kluba ere egin dute hainbat bider. Beteranoen partidua ere jokatu zuten.

Monologoak eta Trikizioren dantzaldia doakoak izango dira

Ekaineko lehenengo hamabostaldian erakusketa jarriko dute San Agustin aretoan. Argazki eta kamisetek osatuko dute erakusketa, eta Gomezen berbetan, "ikusgarria" izango da. Taldeak mende laurdena bete duela ospatzeko, liburu bat ere kaleratu dute. "25 urteotako bizipenak biltzea izan da gure asmoa", dio Gotzon Gomezek. Liburuok, biharko bazkarian, erakusketak irauten duen egunetan eta tabernetan salduko dira, lau euroan. ■ A.M.

Agenda

FUTBOLA

2.B MAILARAKO PLAY OFF-A

Rayo Cantabria - Kulturala

Domekan, 12:00etan, Campo de Monten (Santader)

LEHENBIZIKO ERREGIONALA

Zaldia - Iurretako

Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

ARETO FUTBOLA

LEHENENGO MAILA

Abadiñoako Lagun - Astraburuko

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

BIGARREN MAILA

Gu Lagunak - Beseka

Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

SASKIBALOIA

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako -

Erromoko Ezkorak

Zapatuan, 19:00etan, Landakon

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Paules

Gaur, 18:00etan, Tabiran

PILOTA

BIZKAIKO HERRI ARTEKOAK

Atxondo - Usansolo

Gaur, 20:45ean, Atxondoko pilotalekuan

kirol errota BERRIAK!

30 minutuko fitnesa, aperitibua, proba eta edoteen ekintzen parte hartzeak jarraitu!

APROBETZATU!

Ordutegi zabala:
Asteburuetan ostiralean 07:00etatik 23:00etara
Larunbat eta igandetan 07:00etatik 21:00etara

Informazio gehiago:
09:00etatik 13:00etara / 17:00etatik 21:00etara

www.jasokiolak.com

